1999ko otsailaren 26a. JARDUN ELKARTEA.

Bergarako astekaria

# Berrigara



## Zer irakurtzen dute gazteek?

Justo Garate bekako liburua kalean


APROBETXA ITZAZU MARTXOKO ESKAINTZAK!

400.000

pezetarainoko deskontua izan dezakezu
Xsara edo Xantia bat erostean!





ION AUTOAK CITROËN

Amillaga 36, Bergara Tf. 943 76 47 49 / 73




# Zorionak denoi!

**BEDELKARen Aratusteetako lehiaketa**

Sariak: talde bakoitzarendako 25.000 pezeta
Bedelkarreko jatetxe batean gastatzeko

Hostalaritzako saria:
***Maxim's kafetegia***

Kale animazioko saria:
***Sanberoak***

BEDELKAR
BERGARAKO DENDARI, OSTALARI eta ZERBITZUEN ELKARTEA

# ARRI Industri Hornidura







zabaldu berria!!




Zubiaurre 30, BERGARA. Telefonoa eta faxa: 943 76 19 04. Mugikorra: 670 31 92 44.



# Gerra zikina: badator

**Andres Osa "Sakona"** / Irakaslea

Azken bolada honetan egonezina dago politikoen artean; ez, ordea, gizarte mailan. Egonezin horren arrazoietako batzuk, politikoak dira, besterik bada.

Has gaitezen zer gertatzen ari den azalduz: "kale borroka" dela eta, astakeria askotxo entzuten ari gara. Baina kontutan izan behar da Euskal Herriko prozesu berri hau gauzatzen ari den heinean, gerra zikinaren agerraldiak areagotzen joango direla. Hori horrela izan da mundu guztian eta hemen ere antzera izango da.

Gerra zikina bere neurrian hasi dela esan behar da. Baina garbiki azaltzen denean, danbarradak han eta hemen hasten direnean garbi jakin behar du herritar orok nor den horien egilea. Motibo hau kontutan hartzen badugu, orain bertan egin behar dena zera da: orain bertan "kale borroka" gelditu. Zergatik? Gerra zikinaren atarian gaudenez, ekintzak hasten direnerako herriak egileak nortzuk diren garbi izan dezan. Orain bertan horretan hasten ez bagara, gero gerra zikinaren ekintzak iristen direnean, zalantza eta nahasmena sortuko dira: egileari buruzko zalantzak sortuko dira eta gutarren sinesgarritasuna kolokan jarriko da.

Beste kontu bat ere plazaratu nahi genuke: informazioak zer nolako garrantzia duen eta izango duen. Zela edo hala baina desinformazioa, gezurra, egia erdiak eta abar desmontatzen eginahalak egin beharko dira. Sekulako erasoak jasaten ari gara komunikabideen aldetik. Hori itzaltzea zaila bada ere, ahultzen saiatu beharko ginateke. Horretan gure politikoen erantzukizuna handia da. Orain arte ez dirudi garunak gehiegi behartu dituztenik.

*"Lizarrako Akordioko sinatzaileek, hitz egiten dutenean koherentzia erakutsi beharko lukete. Alderdi bereko batek gauza bat eta besteak beste bat adieraziz, nahasmena sortzen da, besterik ez"*

Eta komunikabideak aipatu ditugunez, puntutxo bat ere agertzeke ezin gelditu. Lizarrako Akordioko sinatzaileek, batez ere alderdi nagusiek, hitz egiten dutenean koherentzia erakutsi beharko lukete. Alderdi bereko batek gauza bat eta besteak beste bat adieraziz, nahasmena sortzen da, besterik ez. Gure etsaiak ongi baino hobeto daki norengana jo: ahoa zabaldu eta potolokeriak eta nabarmenkeriak zabaltzeko beti listo daudenengana. Mikrofonoa edo bloka eskuetan hartuta korrika doaz, ea alpiste berezirik jasotzen duten. Milaka pertsona leudeke langabezian Euskal Herriko konturik ez balute. Baina horren errukirik ez izan.

Eta, azkenik, alderdi abertzaleak une honetan "kale borroka" dela eta, ezin dira hasi neurriz kanpoko baldintzak jartzen. EH zirikatzen ere ez. Eta gutxiago erasotzen. Beldurra eta oportunismoak alboan laga behar dira, bidelagunari lagundu, ulertu eta etsaiari ez eman inolako aukerarik. Laga baztērrean alderdikeria antzuak. Eta norbaitek horrela paparra erakutsi nahi badu, hobe du afizioz aldatzea. **B**

barruan



**M. Jose Olaziregi**

Euskal literaturako irakaslea

***"Zilegi da irakurri gabe bizitzea, baina irakurketak pertsona hobeak egiten gaitu"***

8.



**Aitor Delarriberete**

Snowboardzalea

***"Snow egin arren eskia ere gustoko dut, batzuek kontrakoak direla uste arren"***

21.



**Jon Ander Egaña**

Etxeberria erloju dendakoa

***"Erlojuak konpondu eta bitxiak egiteko pazientzia eta eskua beharrezkoak dira"***

29.

# orain dela...

**BERGARAN GERTATUA**
***1874.*** Martxoaren 2an Jose Larrea Elustiza hil zen. 1900ean jaioa zen Barrenkaleko 17. atarian. Herriko organista eta apaiz izan zen eta Bergarari buruzko liburua argitaratu zuen 1970ean.

**EUSKAL HERRIAN GERTATUA**
***1119.*** Otsailaren 25ean Mairuek Tutera herria laga zuten betirako.
***1513.*** Otsailaren 26an Gipuzkoako harmarrian 12 kainoi ipini ziren.

**MUNDUAN GERTATUA**
***1918.*** Otsailaren 23an Ejerzito Gorri sobietarra sortu zen.
***1981.*** Otsailaren 23an Estatu kolpea Espainian. Antonio Tejero teniente koronela buru zela, 200 Goardia Zibil sartu ziren Madrileko Diputatuen Kongresuan.

# zozketak

**BONO LOTO**
**Eguakitza 19**
3-4-30-31-35-46 (osag.45/itz.3)
**Astelehena 22**
8-20-32-35-46-49 (osag 9/itz.5)
**Martitzena 23**
3-6-16-27-38-41(osag.4/itz.9)
**Eguaztena 24**
1-3-27-30-38-46 (osag.45/itz.3)

**PRIMITIVA**
**Zapatua 20**
5-6-7-8-16-31 (osag.14/itz.6)
**Domeka 21** ***Saritzarra***
9-14-16-21-25-31 (osag.41/itz.5)

**ONCE**
**Eguakitza 19:** 42.169 (030 seriea)
**Astelehena 22:** 67.885
**Martitzena 23:** 59.084
**Eguaztena 24:** 55.922

**BESTE BATZUK**
**Jabiloren aldeko zozketa:**
14.612, 08.059, 14.926, 09.635 eta 28.935. Deitu 943 79 45 17ra.

## Eguraldia
*Igeldoko metereologi behatokia*

Eguakitzean hobera egingo du eta aspaldiko partez eguzkia izango da naugusi. Tenperaturak gora egingo du. Zapatuan oskarbi izango dugu egunaren lehen zatian, baina aldaketa iragartzen da eta domekarako okertu egin daiteke.

## Ilargiaren aldiak

Ilgora: otsailak 23
Ilbete: martxoak 2
Ilbehera: martxoak 10
Ilberri: martxoak 17

## Eguzkia
*Domeka, otsailak 28*

Sortu: 07:55

Gorde: 19:08

## Tenperaturak eta euria Bergaran
*Luis Mari Agirre*

| | max. °C | min. °C | *euria l/m²* |
|---|---|---|---|
| **Eguena 18** | 10 | 7 | *3,6* |
| **Eguakitza 19** | 12 | 8 | *0,2* |
| **Zapatua 20** | 13 | 7 | *3* |
| **Domeka 21** | 13 | 11 | *17,8* |
| **Astelehena 22** | 13 | 11 | *27,9* |
| **Martitzena 23** | 11 | 8 | *8,4* |
| **Eguaztena 24** | 12 | 4 | *13,4* |

# bertako berbak
*Juan Martin Elexpuru*

**Antzigar**

Izotz handia:
antzigarra
dagoenean,
arbolak,
landareak eta abar,
zuri-zuri agertzen dira,
orratz izoztuak
erantsiak dituztelarik.
Zurda, lanzurda.


Josu Okina

*- Antzigarra, normalian, unatan eitten dau. Barra baten egundoko antzigarra dago, ta andik eun metrora, bapez.*

# hamaika ikusteko jaio ginen!

## Hezur trafikoa
New Yorkeko Henry Galianoren *Maxilla and Mandible* izeneko dendan, gizakien eta animalien hezurrak daude salgai. Giza-burezur baten prezioa 100.000 pezeta ingurukoa da eta ñu baten burezurrarena 20.000 pezeta ingurukoa. Agintariak animalien hezurren salmenta dela eta hasi dira arduratzen batez ere, arriskuan jar bailitzake desagertzear diren animali espezieak.

## Farmaziak
**Eguakitza 26:**
GUALLAR. *San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.*
**Zapatua 27:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*
**Domeka 28:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*
**Astelehena 1:**
MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.*
**Martitzena 2:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*
**Eguaztena 3:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*
**Eguena 4:**
GUALLAR. *San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.*

## Ogia
**Domeka 28:** Mizpildi.

## Telefonoak

| | |
|---|---|
| **OSASUNA / LARRIALDIAK** | |
| SOS deiak | 112 |
| DYA | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 76 55 76 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Anbulatorioa (txanda) | 943 76 24 40 |
| Anbulantzia | 943 55 49 62 |
| Udaltzaingoa | 943 77 91 06 |
| Ertzaintza | 943 76 53 40 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Osasun Etxea | 943 76 24 40 |
| Arrasateko ospitala | 943 03 53 00 |
| Asepeyo | 943 76 16 43 |
| Pakea | 943 76 13 49 |
| Angiozarko medikua | 943 78 90 27 |
| Antzuolako medikua | 943 76 62 23 |
| **GARRAIOAK** | |
| Euskotren | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | 943 76 19 50 |
| RENFE | 943 28 35 99 |
| **UDALA** | |
| Udaletxea | 943 77 91 00 |
| Udal Artxiboa | 943 77 91 32 |
| Igerilekuak | 943 76 20 51 |
| Kultur Etxea | 943 77 91 58 |
| Liburutegia | 943 77 91 62 |
| Mizpirualde Egoitza | 943 76 13 68 |
| **BESTELAKOAK** | |
| Epaitegia | 943 76 14 92 |
| Erregistroa | 943 76 13 15 |
| Jardun | 943 76 36 61 |
| Jubilatuen Etxea | 943 76 21 40 |
| Postetxea | 943 76 26 85 |

# zorion agurrak

*Berrigara 358an, **MARTXOAREN 5**a eta **11** bitartekoen zorion agurrak argitaratuko dira.*



**Jose M. Lenisoro**
Otsailaren 27an
43 urte.
Urte askotarako!
Hodei eta Aitzol.



**Asier Lenisoro**
Otsailaren 26an
23 urte.
Urte askotarako!
Hodei eta Aitzol.



**Nere Zurro**
Otsailaren 26an
3 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



**Felix Ormazabal**
Otsailaren 26an
88 urte. Urte askotarako aitxitxa!
Etxekoak.



**Antonio Rodriguez**
Otsailaren 29an
51 urte. Urte askotarako! Emaztea eta seme-alabak.



**Jon Agiriano**
Martxoaren 1ean
5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Aitor Urzelai**
Otsailaren 28an
27 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Aritz Rezusta**
Otsailaren 28an
8 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Beñat.



**Arazeli Herran**
Otsailaren 26an
37 urte.
Urte askotarako!
Loibak.



**Asier Aranguren, "Irutxeta"**
3an 31 urte. Urte askotarako! Botitxeli koadrilakoak.



**Erroxe Etxabarri**
Otsailaren 28an
2 urte. Urte askotarako! Aitatxo, amatxo eta Alazne.



**Maddi Laskurain**
Martxoaren 4an
urtebetetzea. Urte askotarako! Ama pontekoa eta familia.



**Ander Aristi**
Otsailaren 28an
3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Juan Mari Igarza**
Otsailaren 28an
3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Ayala Sasieta**
Martxoaren 3an
2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Angel Rivera**
Otsailaren 26an
17 urte.
Urte askotarako!
Lagunak.



**Sandra Gimbert**
Martxoaren 1ean
15 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



**Roberto Dominguez**
27an 30 urte. Urte askotarako! Isa eta arreba txikia.



**Jose Felix De Benito**
Otsailaren 29an
39 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Maialen Catalina**
Otsailaren 26an
urtebete. Urte askotarako! Osaba-izebak eta lehengusina.



**Maxi Muñoz**
Otsailaren 28an
46 urte. Urte askotarako! Emaztea, Arantxa eta alabak.



**Enrike Azkarate**
Otsailaren 27an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Ibai Gonzalez**
Otsailaren 27an
9 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta lagunak.



**Manuel Prieto**
Martxoaren 4an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Jose Angel Arriaran**
1ean urtebetetzea.
Urte askotarako!
Julen eta Maitane.



**Manex Goiti**
Otsailaren 27an
4 urte. Urte askotarako! Ismene eta gurasoak.



**Pello Etxaniz**
Otsailaren 26an
3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Maialen Arregi**
Martxoaren 2an
6 urte.
Urte askotarako!
Aitor, ama eta aita.



**Maddi Elortza**
Otsailaren 29an
3 urte. Urte askotarako sorgintxo! Gurasoak eta Amaia.



**Maite Oregi**
27an urtebetetzea.
Urte askotarako eta muxu handi bat!
Amaia eta Maider.



**Mikel Edroso**
Otsailaren 28an
2 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



**Andoni Zabalo**
Otsailaren 27an
6 urte. Urte askotarako eta muxu handi bat! Etxekoak.



**Asier Eguren**
Martxoaren 4an
2 urte.
Urte askotarako!
Poligonokoak.



**Ramon Eguren**
Urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak.

## ESKER ONA

# Luis Elguero Losada

*"Takolo"*



Bergaran hil zen
1998ko otsailaren 14an,
80 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko sendikoen izenean.*

## URTEURRENA

# Maria Larrañaga Enekotegi



Lehen urteurreneko meza domekan, otsailak 28, goizeko 11:30etan, Antzuolako Errukizko Amaren parrokian.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## hildakoak

**BERGARA**

**Julia Arrazola Galdos**
Otsailak 21, 88 urte

## jaiotakoak

**BERGARA**

**Izar Odriozola Aristegi**
Otsailak 9

**Isme Fernandez Masa**
Otsailak 13

**Iker Palomares Aranburu**
Otsailak 19

**Iñigo Azkarate Urrutia**
Otsailak 19

# ANTZERKIA

▶ **Eibarko XXII. Antzerki Jardunaldiak**: astelehenean, martxoak 1, Nuevo Ballet Español; martitzenean Tanttaka taldearen "Dakota" antzezlana eta eguaztenean "Ristorante inmortale". Emanaldi guztiak 20:30etan Unibertsitate Laboralean.

# MUSIKA

▶ **Jesus Martyr, Crucible, Avulsed eta Nomen** taldeak gaur, eguakitza, 22:00etan Jam aretoan.

▶ **Caballero Reynaldo**ren pop sikodelikoa eguaztenean, hilak 3, 21:30etan Soraluzeko Gaztelupe tabernan.

▶ **Mondo Sonoro** festa eguen gauean, hilak 4, Jamen. Sargento Garcia, Sunflowers, From head to toe eta Bonzos taldeekin.

▶ **Flamenco jardunaldiak** Elorrioko Arriola aretoan: gaur, eguakitza, 22:30etan Enrique Lozano "El Pescao" eta bihar, ordu eta toki berean, "Flamenco directo" dantza-ballet ikuskizuna Nuevo Ballet Español taldearekin.

# ERAKUSKETA

▶ **Mikel Murgizu**ren "haize@eroak.coñ" argazki erakusketa eta Aratusteetako argazkiak Nahikari tabernan domekara arte.

KONTZERTUA

## *Reincidentes eta Biotech*

**Noiz:** zapatuan, 22:00etan
**Non:** Jam aretoan
**Sarrera:** 1.500 pezeta

Gure artean aski ezaguna den Reincidentes taldearen bisita izango dugu bihar Jam aretoan. Sevillako boskoteak iazko zuzeneko emanaldietan grabatutako "Algazara" (arabiarrez matxinada esateko erabiltzen den hitza) disko bikoitzean somatzen den indarra erakutsiko dute bihar ere Amilagako aretoan. 1987an sortu zenetik, talde honek, aipatutakoaz gain, beste sei disko eman ditu argitara, horien artean "Ni un paso atras" (1991), "Sol y rabia" (1993) edota "Te lo dije" (1997) arrakastatsuak. Gaur egun rock gogorra deritzana egiten duten Estatuko talde garrantzitsuenetako bat dugu Reincidentes eta jarraitzale ugari dauka han eta hemen.

Hard rock eta folklorearen arteko nahasketa egiten dute andaluziarrek euren abestietan baina diskotik diskora tendentzia berriak jasotzeko gertu agertzen dira. "Algazara" zuzeneko diskoan 34 kantu bildu dituzte, Ramones taldearen "Sheena is a punk rocker" eta Rosendoren "Pan de higo" abestien bertsioak tartean. Juanjo Pizarrok ekoiztu eta Londresen grabatutako disko honek harrera ezin hobea jaso du kritika zein publikoaren aldetik. Bestalde, esan beharra dago, besteak beste, Enrique Villarreal "El drogas" (Barricada), Evaristo (La Polla) edota El Cabrero flamenco kantariaren kolaborazioak jaso zituztela iaz egindako "Todo el poder de los soviets" izenburuko jiran. Bihar Jamera hurbiltzen diren Reincidentesen jarraitzaileek beraien musika eta letrekin gozatzeko aukera izango dute. Andaluziarren aurretik, Biotech talde asturiarrak bere rock kantuak eskainiko ditu.



# DANTZA

▶ **Urbeltz Dantza Ganbara** gaur, hilak 26, 22:30etan Oñatiko Gaztelekuan. Kultur Errota.

# IKASTAROAK

▶ **Zine ikastaroa** Elorrioko Arriola Kultur Aretoak antolatuta. Ikastaroa martitzenean, martxoaren 2an, hasiko da eta maiatzera bitartean klaseak martitzen eta eguenetan izango dira, 20:00etatik 22:00etara. 94 658 31 92.

▶ **Urnietako Zine Aretoak** bi ikastaro iragarri ditu: Jaime Caminok zuzendaritza zinematografikoari buruzko 40 orduko ikastaroa emango du martxoaren 8tik 18ra bitartean eta,

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

Carmen Garate
Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...
Bidekurutzeta 6 ☎ 76 13 23

REMENTERIA
Altzariak
Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan
Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29

Enrique De Santiagoren eskutik, aktore zuzendaritza ikastaroa izango da martxoaren 22tik 31ra. Argibideak 943 008 042 telefono zenbakian.

# DEIAK

▶ **Mariaren Lagundia Ikastola**k "Ateak zabalik"eko jardunaldia egingo du bihar, zapatua, hilak 27, 11:00etatik 13:30etara eta 17:00etatik 19:30etara. Herritar guztiei joateko gonbidapena egiten zaie.

▶ **Artatse elkarteko bazkideen ohizko batzarra** bihar zapatua, hilak 27, 16:00etan. Gauean, 21:00etan, Lizaso eta Sorozabalekin **bertso afaria**. Izen-ematea Arranon.

▶ **Hitzaldia: "Etorkizuneko irteera eskolarrak argitzen"**, astelehenean 19:00etan Ipintza Institutuan, DBHko gurasoei zuzenduta. Hizlariak: Juan Mari Sasigain eta Maria Jesus Ansola.

▶ **Udal Euskaltegia**k **sagardotegira** irteera iragarri du martxoaren 5erako. Ikasle izandakoek ere eman dezakete izena martitzena baino lehen. Argibideak: 943 76 44 53.

▶ **Bertso afaria** zapatuan, hilak 6, Osintxuko Txuringo jatetxean, Jose Luis Gorrotxategi eta Joxe Agirre bertsolariekin eta Imuntzo soinujolearekin. Izen-ematea (2.700 pezeta) martxoaren 4a baino lehen Txuringon (943 76 48 63).

▶ **Mendi irteera** Larrea-Artia-Araotzera domekan, 7:30etan Frontoitik, Alpino Gorlak eta Pol-Polek antolatuta. 943 76 48 51.

▶ **Deba Garaiko Abelazle Elkartearen Ohiko Bilkura** Orokorra martxoaren 7an Arrasateko Udaletxean: 11:30etan lehen deialdia eta 12:00etan bigarrena.

▶ **Hitzaldia: Julio Carrillok** Kolonbiako USO sindikatuko Idazkari Orokorrak bere herrialdeak egun bizi duen egoerari buruzko ikuspegia emango du martitzenean, hilak 2, 19:30etan Kultur Etxean. Komite Internazionalistak taldeak antolatuta.

▶ **San Joxepe jubilatuen elkarteak** Lizarrako **"Txarri jana"** jaira egun osoko irteera iragarri du martxoaren 17rako. Izen-ematea (3.750 pezeta) elkartean bertan.

# KINTADAK

▶ **1946an jaiotakoen afaria** martxoaren 13an Tartufo jatetxean. Izen-ematea Tartufon, 943 76 35 51 zenbakian.

▶ **1974an jaiotakoen bazkaria** martxoaren 13an Zabala jatetxean. Izen-ematea (2.500 pezeta) Euskadiko Kutxako 009.0.04589.1 kontuan.

▶ **1956an jaiotako gipuzkoarren bazkaria** martxoaren 28an Zarautzen. 943 76 11 73.

# Z I N E A

## KARTELDEGIA

**BERGARA. Novedades**
**Estado de sitio**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.
**Mas alla de los sueños**
Eguena, zine-kluba: 20:00.

**ARRASATE. Alai zinema**
**Dos vidas en un instante**
Eguakitza: 22:00.
**Entre las piernas**
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

**EIBAR. Unzaga**
**The general**
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**EIBAR. Rialto**
**Quedate a mi lado**
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 19:00, 22:15.
Domeka: 19:00, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**OÑATI. Santana**
**Enemigo publico**
Eguakitza: 22:30
Zapatua: 19: 30, 22:30
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 20:00.
**El principe de Egipto**
Domeka: 17:00.
**Hana-bi**
Eguena, zine-kluba: 20:00.

**ELORRIO. Arriola**
**Enemigo publico**
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.
**La voz de su amo**
Eguena, zine-kluba: 20:15.

## ESTADO DE SITIO

***Zuzendaria:*** *Edward Zwick.*
***Aktoreak:*** *Denzel Washington, Annette Bening, Bruce Willis.*
New York hirian gertatutako hainbat atentatuk arriskuan jarriko dute Estatu Batuetako egoera. Terroristei aurre egiteko FBIko *Hubbard* agentea (Denzel Washington) izendatuko dute. *Hubbard*ek arabiar-amerikarren artean konexio onak dituen *Kraft* (Annete Benning) CIAko agentearen laguntza izango du. *Devereux* militarra (*Willis*) ere tartean izango da eta hirukote honek ez du lan erreza izango...




## MAS ALLA DE LOS SUEÑOS

***Zuzendaria:*** *Vincent Ward.*
***Aktoreak:*** *Robin Williams, Cuba Gooding Jr., Annabella Sciorra.*
Betiereko amodioaren inguruan Vincent Ward zuzendariak egindako filmea. *Chris Nielsen*ek (Robin Williams) mugarik gabe maite du *Annie* bere emaztea (Annabella Sciorra). Elkar ezagutu zuten egunetik ez dira banandu eta, patuak hala erabakiz gero, *Annie* infernuraino ere laguntzeko prest dago *Chris*...

BERRIGARAk ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.


Garnish
Bitxitegia
San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

GISASOLA BURDINAKI DENDA
"Erratzu"
San Pedro 8 Tf.: 943 76 27 70 BERGARA

Afariak ematen ditugu
"Txanbolintxerokua"
BAR LA VNION
Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42

MARI JOSE OLAZIREGI

Euskal literaturako irakaslea

# "Zilegi da irakurri gabe bizitzea, baina irakurketak pertsona hobeak egiten gaitu"

**Mari Jose Olaziregiren "Euskal gazteen irakurzaletasuna" liburua aurkeztuko da gaur, eguakitza, 19:00etan Udaletxean. Olaziregik Justo Garate bekaren 1995eko deialdia eskuratu zuen eta euskal gazteen irakurketa ohiturei buruzko azterketa soziologikoa eman du argitara. Leioako Informazio Zientzien Fakultatean euskal literaturako klaseak ematen ditu gaur egun.**

**G.** Zerk bultzatu zintuen lan hau egitera?

**E.** Batxilergoan klaseak ematen nengoela, gazteek irakurtzeko ohiturarik ez zutela ohartu nintzen eta, irakurgaiekin asmatzen ez genuela ikusita, beraien irakurketa ohiturei buruzko lan bat egiteari ekin nion 1990ean. 14-18 bitarteko gazteen artean 3.000 inkesta egin nituen Hego Euskal Herrian eta handik lau urtera jarraipen bat egin nien inkestatuei. Orduko unibertsitatean ari ziren gehienak eta oraingo honetan, bidalitako 700 inkestetatik 200 erantzun jaso nituen. Horietatik 16 lagun aukeratu nituen elkarrizketak egiteko (Justo Garate beka oso ondo etorri zitzaidan) eta Bernardo Atxagaren "Obabakoak" eta "Behi euskaldun baten memoriak" liburuei buruzko galderak egin nizkien, Atxaga orduko euskal idazlerik irakurriena zelako eta bi liburu horiek irakurrienen zerrendan agertzen zirelako.

**G.** Zer jasotzen da zure liburuan?

**E.** Alde batetik sarrera metodologiko bat, literaturaren soziologiari buruzkoa eta, bestetik, hiru inkesta horien balorazioa eta emaitza, taula eta guzti. Bergarako Udalak ahalegin berezia



Gaur aurkeztuko da Olaziregiren "Euskal gazteen irakurzaletasuna" liburua.

egin du edizio txukuna argitaratzeko eta pozik nago emaitzarekin.

**G.** Lan honek badu zerikusirik "Bernardo Atxagaren irakurlea" izenburukoarekin?

**E.** Bi liburuak 97an defenditutako nire doktorego tesirako eginak dira. "Bernardo Atxagaren irakurlea" kritika saioa da eta hau, berriz, azterketa soziologikoa. Estilo diferenteak dira.

**"Euskarazko irakurketen kasuan normalean eskolako agindu bat dago atzean; gaztelerazkoetan, aldiz, lagunen gomendioak"**

**G.** Atxagaren lana ondo baino hobeto ezagutuko duzu. Nola esplikatuko zenuke izan duen arrakasta?

**E.** Eskaintzen duena jendeari gustatzen zaio, asmatu egin du irakurleekin konektatzen, nahiz eta liburu bakoitzean estilo ezberdina jorratu. Gainera, euskara ulergarriarekin lortu du hori, belarrietatik eta begietatik sartzen den euskararekin.

**G.** Zeintzuk dira zure lanaren ondorioak?

**E.** Ondorioak asko. Adibidez, gazteak adinean aurrera doazen heinean, 21 urtetik aurrera-edo, gutxiago irakurtzen dutela, batez ere euskaraz. Gogoko idazleen artean, 10etik 6 gaztelaniazkoak dira. Euskarazko irakurketen kasuan normalean eskolako aginduren bat egoten da atzean eta gaztelerazkoetan, aldiz, lagunen gomendioak (best-sellerenak gehienak) gehiago hartzen dira kontuan. Gazteek liburutegietara joateko ohitura handirik ez dute. Liburuak erosi? Estatuko bataz bestekoa gainditzen da, urtero, bost bat liburu erosten baitituzte gazteek. Gaiei dagokienez, berriz, adinarekin errealismo eta gai historikoetarako joera agertzen dute.

**G.** Zela baloratzen duzu eskoletan irakurketarekin egiten den lana?

**E.** Eskolak funtsezkoak dira baina eskolan egiten den lana ez da nahikoa. Etxean hasten da irakurzaletasuna pizten eta etxean hasten dena eskolan sendotu egiten da. Zilegi da irakurri gabe bizitzea baina irakurketak pertsona hobeak egingo gaituela uste dugu askok. Johnson kritikariak esaten zuen bezala, irakurketak momentu latzak baretu eta momentu onak handitzen ditu. Ez da gutxi. ■

# Euskaraz irakurtzen ohitzeko kanpaina abian martxotik aurrera

## Euskaldunon Egunkariak eta euskaltegiek bultzatuko dute

**Euskaraz leitzeko ohiturarik ez duten euskaldunek, irakurketarako zaletasuna eta egunero irakurtzen ohitzeko erraztasuna hartu dezaten kanpaina bultzatu dute Egunkariak, Euskal Kulturaren Biltzarrak eta hainbat euskaltegik. Euskaraz irakurtzen trebatzeko ikastaro berezia Akulu-AEK Euskaltegiak antolatuko du Bergaran.**



Euskaldun zaharren artean irakurketarako zaletasuna piztea da helburua.

50 orduko ikastaroa izango da eta martxoaren 10etik ekainaren 10era bitartean luzatuko da. Astero lau ordu emango dira: bi eguaztenetan eta beste bi eguenetan. Ordutegia zehaztu barik badago ere, seguruen 18:30etatik 20:30etara izango da. Ikastaroaren prezioa 12.500 pezetakoa da, hiru hilabeteko Egunkariaren harpidetza barne. Beraz, klaseak hartzeaz gain, egunero Egunkaria irakurtzeko aukera izango da 12.500 pezetaren truke.

Euskarazko klaseak Aitziber Aretxagak emango ditu. Berak esan digunez, "izena ematen dutenei azterketa egingo zaie lehenengo, euskara maila jakiteko. Beraz, ikasleen euskara mailaren arabera egokituko ditugu klaseak". Ikastaro praktikoa izango da, helburua euskaraz irakurtzen trebatzea da eta. Horretarako, Egunkaria, Aizu!, Argia edo BERRIGARA bezalako aldizkariak erabiliko dituzte praktiketan. "Hainbat eta hainbat euskaldun zahar BERRIGARAren bitartez hasi dira euskaraz irakurtzen, baina ez daude ohituta egunkaria euskaraz leitzen" diosku Aitziber Artxagak. Bestalde, idazteko ohitura gutxi dute euskaldun zahar askok, batez ere helduek eta gutun, ohar edo testu laburrak euskaraz idazten ikasi eta ohitura hartzeko ere balio izango die ikastaroak. Guraso euskaldun zaharrek, euren seme-alabek eskolan erabiltzen dituzten testuak ulertzeko ere aproposa izango da.

Ikastaro berezia Hego Euskal Herriko hainbat herritan antolatuko dute, AEK, IKA eta Udal Euskaltegietan. Ekimena aitzindaria denez, lehenengo herri euskaldunetan frogatuko dute ea zela ateratzen den; emaitzen arabera, baliteke beste esparru batzuetara zabaltzea irailetik aurrera.




San Prudentzioko bidegurutzean errotonda jartzea da asmoa.

## San Prudentzioko bidegurutzean errotonda jarriko dute datorren urtean

**San Prudentzioko** bidegurutzean errotonda egiteko eta bidegurutzetik Epelera arteko bidea konpontzeko lanak datorren urtean hasiko dira. Horrela jasota dago Errepideen Plan Orokorrean eta horrela baieztatu berri du Antton Jaime Garraio eta Errepide diputatuak. Foru Aldundian kezkatuta daude obrek eragin ditzaketen eragozpenengatik, Arrasate eta Maltzaga arteko 627 errepidean egunero 17.000 ibilgailu dabil eta. Proiektua onartuta dago eta, orain, lanak lehenbailehen hastea da asmoa. San Prudentzion sekulako auto pilaketa sortzen da, batez ere Oñatitik datozenentzat.



Mizpirualde egoitzan 107 lagun bizi dira une honetan eta beste 10 lagunentzako tokia dago.

# Zaharrek egoitzetan denboraldi bat pasatzeko programa abian

## Zaharrak euren kargu dituzten familiei laguntzeko

**Zaharrek egoitzetan** denboraldi bat pasatzeko aukera ematen duen programa martxan jarri du aurten ere Bergarako Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuak. Programa honen helburu nagusia, zaharrak euren kargura dituzten familiei laguntzea da. Honela, pertsona heldu hauek denboraldi batez Mizpirualde egoitzan edo Gipuzkoako beste egoitzaren batean igaroko lukete eta familiek atsedena hartzeko aukera izango lukete.

Ines Etxeberria Gizarte Ongizate Zerbitzuko teknikariak esan digunez, uztailean eta abuztuan eskaerak asko gehitzen dira, zaharrak euren kargu dituzten familiek oporrak hartzen dituztelako. Halere, urtean zehar ere eskaerak egiteko aukera izaten da, nahiz eta gutxiago jaso. Normalean 15 edo 30 bat eguneko egonaldiak izaten dira. Ines Etxeberriak gomendatzen du programa honekin interesatuta egon daitezkeen pertsonek eskaerak lehenbailehen egin ditzatela. Eskaerak Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuan egin daitezke.

Programa hau Gipuzkoako Diputazioak bultzatzen du eta Mizpirualde egoitzan tokirik ez balego, herrialdeko beste egoitzaren batean egoteko aukera izango lukete zaharrek.

Iaz Gipuzkoa osoan 459 eskari jaso ziren, baina azkenean, 263 lagunek erabili zuten, horien artean 10 bergararrek. Horietatik bederatzi Mizpirualden egon ziren; bestea, Elgoibarren. Bestalde, uda garaian, 5 lagun egon ziren Mizpirualden eta beste bat Elgoibarren; urtean zehar, berriz, hiru lagunek, ospitaletik irten berriak zirela eta, egun batzuk igaro zituzten Mizpirualden eta bestea, etxean obretan zihardutelako eraman zuten egoitzara.

Bergarako Mizpirualde zaharren egoitzan 117 lagunentzako tokia dago, baina ohe guztiak ez daude beteta. Une honetan 107 lagun bizi dira bertan. Bergara, Antzuola eta Elgetako zaharrak hartzen dira.

## Beste 93 milioi PTA Labegaraietako industrialdea urbanizatzeko

**Labegaraietako** industrialdeko urbanizazioaren hirugarren faseko proiektua eta obrak arautuko dituen baldintza pleguak onartu zituen Udalbatzak joan zen astean gobernu taldearen aldeko eta oposizioaren kontrako botoekin.

Obren aurrekontua 93.158.084 pezetakoa da eta obra guztiak egiteko gehienezko epea, lau hilabetekoa izango da Tokiaren Egiaztapen Akta sinatzen denetik aurrera. Proiektua Sestra SAL ingenieritza etxeak idatzi du. 75.000 metro kubiko lur mugituko dituzte makinek urbanizazio fase honetan. Labegaraietako industrialdeko urbanizazio lanetara, dagoeneko, 337 milioi pezeta bideratu dira. Herri Batasunak hirugarren faseko exekuzio proiektuari ezetza eman dio, ganorazko ikerketa geoteknikorik ez dela egin argudiatuz.

## San Antonioko bidegurutzea zabalik Martokotik datozenentzat

**Uhola errekaren** bideratze lanak direla eta, udaz geroztik itxita izan den San Antonioko bidegurutzea zabaldu egin zuten astelehenean Zubiaurre eta Martoko kaleetatik datozen ibilgailuentzat eta San Antoniotik Gabiria aldera doazenentzat.

# Etxanizen egoerarengatik protesta egiteko enkartelada espetxe aurrean

**Joan zen eguakitzean** Jose Mari Etxanizek kartzelan 19 urte betetzen zituela eta, manifestazio jendetsua izan zen herriko kaleetan zehar Amnistiaren Aldeko Batzordeak deituta. Manifestazioaren ostean, Puerto de Santa Marian Etxaniz bisitatzeko autobusa irten zen Bergaratik. Etxaniz Askatu Plataformak egindako deiari erantzunez, autobusa bete zuten bergararrek 12 orduko bidaia egin eta gero, enkartelada egin zuten lau orduz kartzela aurrean. Enkarteladan, Imanol Bolinaga EAJko senatorea, Jesus Mari Garitano, Aitor Aranzabal eta Ane Miren Olabarria HBko zinegotziak eta Cadizeko hainbat intelektual ere bildu ziren. Bolinaga kartzelako zuzendariarekin elkarrizketatu zen eta bergarar presoaren egoerari buruz Plataformak prestatutako txostena eman zion.




40 bat bergarar abiatu ziren Puerto de Santa Mariara protesta egitera.

Bestalde, Iñaki Arietaleanizbeaskoa preso bergararrak mugagabeko gose grebari ekin zion astelehenean. Modu honetan, Ourenseko kartzelan dauden hiru preso politiko euskaldunek jasaten duten isolamendu egoera salatu nahi du. Jokin Sancho eta Gloria Rekarte dira beste bi presoak. Gloria emakumeendako moduluan dago, baina Iñakik eta Jokinek ez dute elkar ikusteko aukerarik, modulo ezberdinetan banatuta daudelako. Bi presoek elkarrekin jartzeko eskakizuna behin baino gehiagotan egin dute, baina zuzendaritzak ez die kasorik egin.

**CAMBRIDGE**

EXAMINATIONS, CERTIFICATES AND DIPLOMAS
ENGLIH AS A FOREIGN LANGUAGE

**University of Cambridge**
**Local Examinations Syndicate**
**International Examinations**

Matrikulak martxoaren 1etik 1ra

**AZTERKETAK ETA DATAK**

| | |
|---|---|
| Young Learners (Starters, Movers, Flyers) | Ekainaren 5ean |
| K.E.T. (Key Engkish Test) | Ekainaren 12an |
| P.T.E. (Preliminary English Test) | Ekainaren 12an |
| F.C.E. (Firt Certificate English) | Ekainaren 19an |
| C.A.E. (Cambridge Advanced english) | Ekainaren 16an |
| C.P.E. (Cambridge Proficiency English) | Ekainaren 17an |
| B.E.C. 1 (Business English Certificate 1) | Maiatzaren 29an |
| B.E.C. 2 (Business English Certificate 2) | Ekainaren 5ean |
| B.E.C. 3 (Business English Certificate 3) | Maiatzaren 29an |

ESPOLON
School of English

***INFORMAZIOA:***

*Ibargarai 31, barruko plaza. BERGARA.*
*Telefonoa eta faxa: 943 76 03 53.*

*Astelehenetik eguakitzera: 10:00 - 12:30 eta 16:00 - 19:00*

# Berrigara

357 zenbakia.
1999ko otsailaren 26a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**
**Telefonoa: 943 76 03 97**
**Faxa: 943 76 29 77**
**Argitaratzailea: JARDUN Elkartea**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.
**Erredakzioa:** Eneko Azkarate, Edu Mendibil, Aitziber Azkondo.
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.
**Harpidetza:** Nerea Lazpiur.
**Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien, Mirari Alberdi, Maripi Laskurain.
**Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien, Gorka Elortza.
**Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
**Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azala: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntzaz:**

Bergarako Udala — Gipuzkoako Foru Aldundia — Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

## gutunak

*Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.*

### EGOERA HONEN AURREAN

Estatu espainolak eragindako indarkeriaren ondorioz, bere komunikabide sarearen bitartez (TVE, A3, T5, El Mundo, El Pais...) PP eta PSOEren zinegotziei egiten zaien presioa, eta kale borrokan barneraturiko ekintza erreibindikatiboak direla eta, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, zera adierazi nahi du: gobernua herri honi txantaia egiten ari zaiola, presoak bakearen truke erabiliaz, herri honen nortasuna ukatuz eta kale borroka herri honek bakea lortzeko oztopo garrantzitsua dela adierazten duenean.

Ez dugu ahaztu behar, gaur dela eguna Atutxa jaunak (Eusko Legebiltzarreko lehendakaria denak) "Grupos Y" direlakoak, kale borrokaren bultzatzaileak, Barne Sailburua zenean sorturiko muntaia faltsu bat zela adierazten duena.

Honengatik guztiagatik adierazi nahi dugu beti egongo direla edozein pertsonaren ekintza erreibindikatiboak, herri honi dagozkion eskubideak ukatzen zaizkion bitartean.

Orain dela 5 hilabete ETA erakunde armatuak suetena iragarri zuenetik, PP eta PSOE behin eta berriz egiten ari diren bakarra euskal preso politikoen eskubideak zapaltzea izan da. Beraz, gure desadostasuna adierazi behar diogu edozein pertsonari bere kargu publiko zein ofiziala presoen eskubideak zapaltzeko erabiltzen duenean, pertsona hauek baitira herri honen benetako torturatzaileak. Egoera honek bere irtenbidea aurkituko du benetako bake prozesu bat adierazten den heinean.

Bukatzeko, besarkada bero bat Bergarako preso eta errefuxiatu guztiei, eta gure eskerrak urtean zehar presoaren bizitza pixka bat hobea egiten laguntzen duteni.

*Bergarako Amnistiaren Aldeko Batzordea*

### HUTSAK ZUZENTZEN

Joan zen asteko BERRIGARAn, 9. orrialdean, Eguren tailerreko makineria zaharrarekin Udalak Labegaraietan egin nahi duen erakusketa iraunkorraren inguruko albistean oker bat zegoen. Udal museologoak Eguren tailerreko makineriaz gain, ondare industrialeko beste pieza batzuk gordetzeko erakustokirako sarrera kiroldegitik egitea proposatzen zuela adierazten genuen albistearen bukaeran. Hau ez da zuzena. Udal museologoak proposatzen duena zera da: "Etorkizunean erakusketa anpliatuko balitz, Eguren tailerreko makineria zaharraren erakusketa eta anpliazioaren arteko lotura eta pasabidea, pabilioitik atera gabe egitea".

Hortaz, Ozaetako zubira ematen duen aldean egongo litzateke pabilioirako sarrera nagusia eta, beraz, Eguren tailerraren erakusketarako eta beste biltegirako sarrera bakarra izango litzateke.

## tira biraka: unai azkarate



atrebentzia ezpada

## Liburutegi eta kiroldegixak astebukaeretan ordu gehiagoz zabalik egotia bultzatu nahi dau Diputaziñuak.



**Aitor Larbi**

Ondo iruditzen zait. Ni ez naiz joaten normalean ez kiroldegira ezta liburutegira ere, baina jendeari aukera hori ematea eta ordutegia luzatea ondo ikusten dut.



**Jaio Mendibil**

Ideia ona da. Astian zihar joaterik ez daukenak astebukaeran joan ahal izango dira horrela. Liburutegira ez nitzake joango, baiña kiroldegira igual bai.



**Miriam Garcia**

Nik ez neuke erabiliko, baiña ondo pentsatzen jat. Gazteendako irtenbide politxa izan leike. Ez dakit jendia joango dan. Ikusi egin bihar...



**Joakin Ostolaza**

Ondo pentsatzen jat, gazteak nora joanik ez dauke eta. Kiroldegira behintzat joango da jendia. Ni piszinara joaten naiz baiña zapatu eta domeketan jai.



**Arantza Azurmendi**

Neri ondo pentsatzen jat. Ni neu ez nitzake joango, baiña joan nahi dabenendako aukera ona da. Baiña ez dakit gazteak joango diren...



**Elena Mielgo**

Ni behintzat ez nintzateke joango, baina ideia ona dela ematen du. Igual 24 orduz zabalik egotea gehiegizkoa da, baina ordu batzuk luzatzea ondo legoke.

bai, esan!

*Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi izanez gero, deitu 943 76 03 97ra. Identifikatu bariko mezurik ez da onartuko.*

### ZAPATUAN TXIO-TXIOKA ETA POZ-POZIK

**Juan Alberdik** deitu du BERRIGARAra aste honetan, zapatuan Novedadesen izandako Taun-Taunen "Txio-txioka" haurrei zuzendutako lanarekin zoratzen geratu zela eta. Juan, bere alabarekin batera joan zen emanaldira eta zeharo txundituta geratu zen lanaren fintasuna eta gustu onarekin; musika ere oso polita. Erritmoan somatu omen zituen huts batzuk: bere iritziz, hasierako aurkezpena eta zinemako zatia luzeegiak izan ziren. Juanen alabatxoa ere gustora egon omen zen ikuskizuneko panpinen berriketaldiekin eta objetu hegalariekin. Juanek, lehenbailehen beste lanen bat presta dezaten animatzen ditu Taun-Taunekoak.

ikuspuntua: **juan antonio migura**

# *Madeleine amonatxoa*



Amonatxo atsegin baten itxura duen andre bat, Madeleine Albright izenekoa, planetan zehar dabil errezeta majikoak aholkatuz, baina norbaiti hauek aplikatzea ahazten bazaio, indarrez erasotua izateko mehatxua izango du. Rambouillet-en ere izan da, serbiar eta kosobarrei buruzagi handia zelatan dagoela gogoratzeko.

Teorikoki, auzien nazioarteko kontrola onerako izan daiteke, neutraltasun apur bat eskaintzen duelako. Arazoa da beti direla iparramerikarrak, Nazio Batuen Erakundearen agindupean edo agindu barik.

Estau Batuek eta bere bazkide europarrek munduko bakea lortzeko egiten dituzten ahaleginak bertan behera gelditzen dira iparramerikako makroestrategiak direnean auzigai. Adibide garbia dugu kurduena, Ocalan bahitzearekin pasarterik lotsagarriena ezagutu duena. Zergatik ez da Madeleine Turkiara joaten kurduen eta turkiarren arazoen berri izatera? Erantzuna oso sinplea da, Turkia iparramerikarren koto bat baita, Ekialdeko Europa eta Asia artean dagoen koto bat. Alde guztietara ere interbentzio militarrak egiteko puntu geoestratejikoa. Diktadurapean bizi den herrialdea, turkiar eta kurduek jasaten duten diktadura; eta kasu honetan bake konferentzia bat antolatu ordez giza eskubideak errespetatzea besterik ez dute eskatzen.

Ocalanen bahiketak espia nobeletako elementu guztiak dauzka, traizioak, topoak eta CIA eta Mosadeko superajenteak. Baina tristeena da errealitatean 007ak interes ezkutuak babesten dituela eta ez duela planeta salbatzen. B

**asteko menua: etxagi jatetxea**

# Arrain budina Etxagi erara



KONTXITA AGIRRE
*Etxagi jatetxekoa*

**OSAGAIAK (4 lagunentzat)**
- Kilo erdi legatz (freskoa edo izoztua)
- 300 gramo ganba
- 3 langostino
- Kilo erdi esturioi
- 6 goilarakada tomate (egindakoa)
- 4 arrautza
- Litro erdi esnegain likido
- Kipula laurdena (zartaginean pasatutakoa)
- Piperbeltz zuri apur bat
- Intxaur moskatu pittin bat
- Gurina
- 50 gramo espinaka

**PRESTAKETA**
- Arrainak (legatza eta esturioia), ganbak eta langostinoak, arrautzak eta espinakak egosi.
- Arrainak, ganbak eta langostinoak garbitu eta bol batean ipini.
- Arrautza egosiak txikitu eta arrain eta mariskoei gehitu.
- Bol horretara, beste bi arrautza oso, tomatea, kipula, esnegaina, piperbeltz zuria, intxaur moskatua, espinakak eta gatz apur bat gehitu.
- Osagai guztiak ondo nahastu eta batidoran pasatu.
- Molde handi bat hartu eta gurinarekin igurtzi.
- Batidoratik pasatu ditugun osagai guztiak moldera bota eta maria bainuan 200 gradura ipini labean.
- Ordu erdi pasatutakoan zela dagoen begiratu, labea beroago edo hotzago jarri, eta beste apur batez bertan eduki.
- Labetik atera eta hozten laga, moldetik platerera errazago atera ahal izateko.
- Mahaira ateratzeko, xerrak egin eta letxuga eta mahonesa apur batekin aurkeztu.

**adituen esanetan**

# Ondoeza

PABLO GALLASTEGI, *psikiatra*

Gaur egun ondoezari depresioa deitzen dio jendeak baina biak desberdindu beharra dago, depresioa askoz larriagoa delako. Ondoeza jende askok sufritzen du eta arrazoi askorengatik ager daiteke: komunikazio arazoengatik (gauzak kontatzeko entzule egoki bat ez izateagatik), inguruko harremanak denborarekin aldatzen joaten direlako (interesak menperatzen ditu harremanak askotan), behar ekonomikoak gero eta handiagoak direlako edota gaurko bizimodua gogorra gertatzen zaiolako jende askori.

Ondoezak larritasuna ekartzen du atzetik, hau da, beldurraren beldurra. Hori da ondoezak agertzeko duen modurik garrantzitsuena. Larritasun horrek hainbat ondorio izan dezake: krisia, buruaren nahastea, gauza konkretuei beldurra handiak (fobiak agertzen dira) edota sintoma depresiboen agerpena (hainbeste presiorekin gorputza nekatu egiten da). Sintoma depresiboak nekea, tristura, interes galera, gosea gutxitzea eta harreman sexualetarako gogorik eza dira, besteak beste. Ondoeza tratatzeko hainbat modu daude: berba eginez tratatu daiteke (psikoanalisia edo psikoterapiarekin), familia terapiarekin edota medikamentuen bidez. Espezialistak erabakiko du zein hartu. B

**bergarako gordailutik**

# ZILARGINTZARIK BAI OTE?

**Imanol Sorondo**

Urte batzuk badira prozesioetako gurutze bat ikusi nuela Zumarragan, metro eta laurden daukana eta irudiz eta dibujoz zilar landu eta doratukoa, XVI. mendearen bigarren laurdenekoa; benetan ikusgarria! Esan izan da frantsesa dela, Aviñongoa zehatzago, dauzkan marketan X baten modura ipinitako bi giltza ikusten direlako. Beti gelditzen zaizu zalantza nolatan edo zer dela eta ekarriko ote zuten Aviñondik horrelako gurutze bat, besterik gabe hori onartzeko.

Orain bi urte Gasteizkoa den Rosa Martin anderea gure artean ibili zen bere doktoradutzarako tesia, Arabako zilargintzari buruz egin nahian. Zumarragako gurutzea erakusterakoan esan nion Bergarako harmarriak X baten modura ipinitako giltzak zeuzkala eta ni ez nintzela gehiago esatera ausartzen. Rosa Martinek gurutzearen azterketa egiten du argitaratu berri duen Arabako zilargintzaren liburuan eta, nongoa den adierazterakoan, Bergarakoa izan litekeela dio.

Gure herrian bazeuden XVI. mendean zilargintzan jarduten zuten plateroak: adibidez, Eskalante (1537), Izagirre (1566) eta Jacques Matheo (1568), hau jatorriz frantsesa; XVII. mendean Arenas, Artega eta Zabala azaltzen dira, baina oraindik ez dakit bergararrak ziren.

Zilargintzarako baimena behar zen, izendatutako mahai batek onartua, egindako piezaren eta erabilitako zilarraren kalitatea markatzaile batek neurtu behar zuen, bere ezaugarria eta herriaren zigilua ipiniz, saltzeko ere baimena behar zen, eta abar. Ez zen, beraz, txantxetako gauza. Herri handi eta garrantzizkoek bakarrik izaten zuten zilargintzarako eskubidea. Bergarak bai ote? Gustatuko litzaiguke. B



# Zuhaitz eguna

Urtero moduan, herriko gaztetxoek zuhaitzak landatzeko irteera egin zuten zapatuan. Aurtengo Zuhaitz Eguneko landaketa **San Martzial** inguruan egin zen eta bertan gaztetxo ugarik hartu zuen parte. Helburu nagusienetako bat gaztetxoen artean inguruarekiko errespetua piztea izaten da eta, bide batez, premia dagoen lekuetan zuhaitzak landatzen dira. Zapatuan **150 bat zuhaitz** (pagoak, urkiak, aritzak...) landatu ziren San Martzial inguruan. Lan bikaina egin ondoren, gaztetxoei ogitartekoa eta edari bana eman zitzaien. Datorren urterarte!!

# *Aratusteetako argazkiak*

*Udal **Euskaltegiak**, ikasleen arteko **argazki lehiaketa** antolatu zuen Karnabaletan. Ikasleek argazki zaharrak eta aurtengoak aurkeztu zituzten eta joan zen martitzenean eta eguaztenean **70 argazki** inguru izan ziren ikusgai euskaltegian. Azkenean, epaimahaiaren erabakiari jarraituz, **Edurne Garcia** osintxuarrak eskuratu zuen lehen saria alboan ikus dezakezuen argazkiagatik. Edurnek sari gisa **Elhuyar biztegia** jaso zuen. Era berean, **Belen Pinilla eta Isabel Alnoso** ren argazkiak ere saritu zituen epaimahaiak.*







# Urrezko ezteiak

**Mariano Martinez eta Bittori Gutierrez** senar-emazteek euren ezkontzaren **urrezko ezteiak** bete zituzten joan zen **otsailaren 12an**. Ohi den bezala, elkarrekin igarotako 50 urteak familiartekoekin ospatu zituzten. San Balentin egunean, Arantzazun meza entzun ondoren, senideekin bildu ziren mahai baten inguruan. Maitemindu egunean egun ahaztezina igaro zuten Bittorik eta Marianok. Zorionak!!

*Hitz egin, irakurri, idatzi, komunikatu...*




Euskaraz trebatzeko
50 orduko ikastaroa
+
Urte beteko
Egunkariako harpidetza

~~50.400 pzta.~~
27.000 pzta.

Egunkaria

Ez galdu aukera hau.
Jar zaitez harremanetan
hurbilen duzun euskaltegiarekin

# kontuola...

KONTUOLA, Idolaz elkartea, ANTZUOLA. **Kazetaria**: Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua**: Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak**: Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

*Antzuolako hamabostekaria, 32 zenbakia. 1999ko otsailaren 26a.*


# Intsumisioak 10 urte bete ditu

## Antzuolako Intsumiso taldeak aspaldi laga zion lanari

**Intsumisoen mugimenduak hamar urte bete zituen joan zen otsailaren 22an. Hamarkada osoan derrigorrezko soldaduzkari ezezkoa eman dion mugimenduak, ordea, ez du bere garairik onena bizi. Antzuolan esaterako, ez dago intsumiso talderik. Orain arte hor ibili direnek bilerak egiteari laga zioten eta ordutik ez dute ezer antolatu. Dena den, Antzuolako Insumiso Taldeak (AIT) ekintza ugari antolatu ditu herrian urteetan zehar.**

NATOren aurka eratu zen plataformatik ekin zioten orain dela hamar urte euskal gazte batzuek armadaren kontrako salaketari. Derrigorrezko soldaduzka abiapuntutzat harturik, intsumisioak armada jakean ipini zuen. Antzuolan ere orain dela zortzi bat urte hasi zen herriko intsumiso taldea gazteei soldaduzkara ez joateko arrazoiak azaltzen. Garai hartan hamar bat lagun biltzen ziren astean behin haurren eskola zaharrean intsumisioa nola kaleratu aztertzeko. Urtebeteren bueltan, Kakitzak Koordinakunde Antimilitaristarekin lanean hasi zen AIT eta orain dela gutxira arte izan da horrela.

### INTSUMISIOAK GORA

AITk zerbait lortu badu, herriko gazteak derrigorrezko soldaduzkara ez joatea izan da. Izan ere, herrian azkenengo hamar urteetan soldaduzkara joan diren gazteen kopurua erabat jaitsi da, eta azkenengo urteetan, bina lagun joan dira urtero. Horrek, ordea, ekarri du bere alde txarra ere. Bere egunean herriko gazte bat kartzelan egon zen soldaduzkara ez joategatik eta beste bi herritarrek Ertzaintzaren egoitzan pasa behar izan zuten gaua epaiketara ez agertzeagatik. Horrez gain, gaur egun herriko hainbat gazte inhabilitaturik daude. Hau da, legearen arabera, ezin dute laguntza publikorik jaso ez eta babes ofizialeko etxebizitzetan izenik eman ere, besteak beste. Baina inhabilitazioa ez da oraindik martxan jarri, eta honek ere intsumisio mugimenduaren gainbehera ekarri du. Jadanik gazteak ez dira intsumisioarekin identifikatzen eta honek ere Euskal Herriko intsumiso mugimendua berriz planteatzea ekarri du. AIT desagertzea Gipuzkoako ia intsumiso talde guztien desartzearekin batera eman da. Gaur egun Irunen bakarrik jarraitzen dute lanean.

### EUDIMA

Joan zen zapatuan EUDIMAk, Euskal Herriko Udal Intsumituen Mankomunitateak, urteko batzarra egin zuen Arrasaten. Han elkartu ziren ordezkariek urteko balantzeaz eta aurrera begira egin beharrekoaz jardun zuten. Intsumisioak hamar urteko ibilbidea betetzen zuen egun berean egin zuten bilera EUDIMAko udal ordezkariek.

Antzuolako Udala ere EUDIMAn sartua dago, baina ez zen ordezkaririk joan Arrasateko bilerara. Joan zen martitzenean, bestalde, kanpaina bat aurkeztu zuen EUDIMAk Oiartzunen. Kanpaina honen bitartez herri akordioa bultzatu nahi dute enpresari, sindikatu eta alderi politikoen artean, inhabilitazio kasuetan interpelazio lana egiteko. ■




*1997ko azaroan zozketen aurka egindako manifestazioa.*

## Unai Idiakez, pilotaria

# “Hemendik juandako euskaldun

**Unai Idiakez, pilotari antzuolarra, San Frantziskon (Estatu Batuak) izan zen orain dela bi aste. San Frantziskoko Euskal Etxeak gonbidatuta beste hiru pilotarirekin batera abiatu zen Unai Ameriketara. Bi pilota partidu jokatu zituzten Unai Errasti aretxabaletarrak, Unai Iparragirre eskoriatzarrak, Iker Muruamendiarazek eta Unai Idiakezek, Euskal Jaia zela eta.**






*Alcatraz kartzela ospetsutik ere pasatu ziren lau pilotariak.*

Garai batean Ameriketara joandako euskaldunekin egin zuten topo lau pilotariek San Frantziskon. Hango Euskal Etxeak antolatutako Euskal Jaira joan ziren. Hango euskaldunek Euskal Herriko pilota federaziora jo zuten, Euskal Jaia zela eta, pilota partiduak antolatzeko.

Iazko euskal ligako txapeldunak, Iker Muruamendiaraz eta Unai Idiakez, eta finalera heldu ziren Unai Iparragirre eta Unai Errasti bidali zituen federazioak San Frantziskora.

**Zertara joan zineten Ameriketara?**

Urtero antolatzen dabe, urtian behin edo, jai bat eta pelotarixak juaten dira jokatzera. Hemendik juandako euskaldunak, oin han bizi diranak, alkartzen dira eta jai bat egitten dabe. Eurak antolatutako biajia izen zan eta euren kontura izen da dana. Guri etzoskuen lagatzen ezer pagatzen.

**Zenbat egunetako jaia izan zen?**

Bi egun, zapatua eta domekia. Bi egunetan partidua jokatu giñuan.

**Beraz, ingurua ezagutzeko denbora izan zenuten**

Bai, eguaztenian aillegatu giñan. Afaldu ondoren oheratu eta hurrengo egunian Golden Gate eta Alcatraz kartzelia ikustera juan giñan. Aldapak be ikusi giñutzen. Harek dira aldapak, kristonak! Tranbiak be ikusi giñutzen, baiña ez giñan ibilli. Gu kotxetan ibilli gara. Baiña, kotxiak be kristonak dira. Han dana haundixa da! Astelehenian eta martitzenian Nevadan egon giñan. Reno ezagutzera juan giñan: hango kasinuak eta! Diru pixka bat galdu eta buelta. Bueno, Iñurrategik irabazi egin zeban. Bi egunetan 900 km egin giñutzen. Kotxian denpora asko egin dogu.

**Horrelakorik imajinatzen zenuen?**

Ez. Haura dana berrixa izen da neretako. Iñurrategi egonda zeguan, Berraondorekin-eta juan zanian, eta harek ezagutzen zeban haura pixka bat. Nevadan, Renon, dana argixa zan. Edozein etxe zan kasinua. Sekulako biziua dago. Goizian goiz jentia txanpon makiñetan ikusten ziñuan. Basokada bat fitxa aldatzen zeban jentiak eta jokatzera.

■ ■ ■

*“Ingelesez ezebez, dana euskeraz. Gipuzkoa eta Bizkaikuak gutxi dare eta Iparraldekuekin euskeraz egitten giñuan”*

■ ■ ■


Arin
JATETXEA
Euskal sukaldaritza
Eguneko menua
Kalebarren 7, ANTZUOLA Tf. 943 78 71 12

Argazkiak • Bitxitegia
Juan Cruz
Jaunertze egunerako argazkiak eta opariak
Herriko plaza 4, ANTZUOLA. Tf. 943 78 70 66




# ...alkartu eta jaixa egitten dabe"

**Euskal Etxean egon zarete?**

Lo hotelian egiten giñuan, baiña afaldu eta bazkaldu Euskal Etxian. San Frantziskoko Euskal Etxiak eztauka lo egitteko lekurik, jatetxia da bakarrik. Zapatu dana Euskal Etxian egin giñuan, urten barik. Hango gaztiekin egon giñan eta domekan bertako taberna baten egon giñan. Han ezta txikiteatzen hemengo moduan. Goiz afaltzen da, zazpiretarako gutxi gorabehera, eta gero ezta urtetzen. Baiña afaldu ondo egin giñuan. Gehixenetan haragixa, oso ondo. Ondo hartu gaittue. Gero penia etortzeko!

Abade bat geunkun baztarrak erakusteko eta harekin ibilli gara. Abadia be Iparraldekua zan. Gu San Frantzisko erdittik hogei bat miñutura egongo giñan. 800.000 bizilagun edo dare. Guretako haundixa!

**Harrera ona egin dizuete?**

Gurekin oso ondo portau dira. Dana eginda emon doskue. Hotelera billa etortzen ziran eta bueltan eruan be bai.

**Euskal Etxeen artean harremanik badute?**

Bai. San Frantziskoko Euskal Etxiak antolatutako jaira ingurutako Euskal Etxietakuak be juan ziran: Wyoming, Idaho, Nevada... Euskal Etxe asko dare eta holakotan alkartu egitten dira.

**Euskaraz ala ingelesez?**

Ingelesez ezebez, dana euskeraz. Iparraldekuak dira gehixenak, Gipuzkua eta Bizkaikuak gutxi dare, eta Iparraldekuekin euskeraz egitten giñuan. Danak eztakixe, baiña askok bai. Euren artian gehixenetan ingelesez egitten dabe, baiña gurekin euskeraz. Batuaz egitten saiatzen giñan, eurek Iparraldeko euskeraz egitten dabe eta, baiña ulertzeko lain bai.

**Zer diote hango euskaldunek Euskal Herriaz?**

Asko akordatzen dira eta euretako asko, gaiñera, udan etorri egitten dira sarrittan. Ohitturei behintzet eusten jaue: dantzarixak, pelotarixak... Itxuraz badie diferentiak: haundixak dira! Baiña hemengo egoeriaren gaiñian eztoskue galdetu. Guk geuk be, han egon gan bittartian, eztogu hemengo berri euki.

**Ikastera edo lanera joandako euskaldunen batekin egin duzu topo?**

Hemendik lanera juandakuekin bai.

**Pilotan zelan jokatu zenuten?**

Gure artian ibilli giñan. Han be egitten dabe pelotan eta poliki gaiñera. Mundialak laister Bilbon izengo dira eta harek be ekarri egin biharko dittugu. Partiduak, bestela, bi jokatu giñutzen: zapatuan Murukin jokatu neban, Errasti eta Iñurrategin kontra eta domekan, Errastikin, Muru eta Iñurrategin kontra.

**Datorren urtean ere joateko, beraz**

Bai, baiña aurten kanporatu egin gaittue eta eztogu aukeraik eukiko. Bestela, gustora juango nintzake berriz. Udan aukeria euki ezkero, juango naiz! ■




*Unaik eta Ikerrek erosketak egiteko astia ere izan zuten.*

"Gurekin oso ondo portau dira. Dana eginda emon doskue. Hotelera billa etortzen ziran eta bueltan eruan be bai"

HARIZKI
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

ONGI-ETORRI
JATETXEA & TABERNA
Berezitasunak:
haragi eta arraina txingarretan
Buztinzuri 6, ANTZUOLA
Tf. 943 76 63 49




*Plataformaren aurkezpena.*

# Euskal presoen alde

## Auzoetan kontzentrazioak egingo dira

Euskal Presoak Euskal Herrira Antzuolako plataformak beste kanpaina bati ekingo dio martxoan. Izan ere, herrian egin dituzten mobilizazioekin jarraitzeko asmotan, auzoka egingo diren kontzentrazioak antolatu dituzte. Lehenengoa martxoaren 5ean izango da eta Errekalde auzoan egingo da. Epe batean, hilero, auzoka egingo da euskal presoen aldeko kontzentrazioa. Horrekin batera, plataformak auzo bakoitzeko bizilagunei balkoietan "Euskal Presoak Euskal Herrira" dioen anagrama ipintzeko eskatuko die. Ahalik eta anagrama gehien ipini ahal izateko, gainera, Surpe eta Larrea tabernetan jarri dituzte salgai.

Lehenengo kontzentrazioa martxoaren 5ean, eguakitza, arratsaldeko 19:00etan, Errekalden, esan bezala.

**KARMENEN FIDANTZA**
Karmen Irizarren fidantza ordaintzeko, Amnistiaren Aldeko Gestorek 5.000 PTA.ko bonoak jarri dituzte salgai. Kontuolan azaldu genizuen bezala, Karmenek bi milioiko fidantza ordaindu behar izan zuen kartzelatik irten ahal izateko. Interesatuek Amnistiaren Aldeko Gestorekin harremanetan jarri.

### EGONALDIAK EGOITZETAN
Aldi baterako egonaldiak antolatu ditu Gizarte Zerbitzuak erretiratuentzako. Familiari atsedenaldia emateko asmotan jarri dute martxan programa. Familiaren batek etxean duen adineko pertsona ezin badu zaindu epe jakin batean, aukera dauka denboraldi baterako egoitza batera eramateko. Urtean zehar hilabeteko egonaldia egin daiteke egoitzetan. Egonaldia, gainera, jarraian edo tarteka egin daiteke. Ordaindu behar den prezioa adineko pertsonaren ezintasunaren araberakoa da, eta bere diru sarreren araberakoa. Gehienetan ez da arazorik egoten lekuari dagokionez, baina uztaila, abuztua eta irailerako eskaera kopurua handiagoa izaten denez, lehenbailehen egin behar izaten da eskaera uda parterako. Informazio gehiago, Udaletxeko Gizarte Zerbitzuan.

### KALE ANTZERKIA
Martxoaren seian, zapatua, "Panta Rhei" kale animazio taldea arituko da Antzuolan. Kale antzerkia eskainiko dute egun horretan 18:00etatik aurrera.

### 3. ADINEKONTZAT PROGRAMAK
Arnedillo (Errioxa), Fitero (Nafarroa), Alcoceber (Castellon) eta Xanxenxora (Galizia) joateko bidaiak antolatu dituzte Antzuola eta Bergarako gizarte zerbitzuek hirugarren adinekoentzat. Irteerak apiriletik ekainera bitartean izango dira, bidaiaren arabera eta prezioa erretiratu bakoitzaren diru sarreren araberakoa. Betebeharren artean, 65 urte izatea, Gipuzkoan bizitzea eta nor bere kabuz baliatzeko gai izatea. Informazio gehiago, Udaletxeko gizarte laguntzaileak.

### PATXIKU TXERREN LEHIAKETA
III. Patxiku Txerren literatur lehiaketan parte hartzeko epea apirilaren 26an amaituko da.
Parte hartzaileak lau taldetan banatu dira eta lanak "Patxiku Txerren literatur lehiaketa" izenburupean aurkeztu daitezke Udaletxean bertan.

**igor eta Txomin**
*Pintura orokorrean.*
*Paper, tela, binilo, kortxozko... estaldurak.*
*Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.*
ANTZUOLA ☎ 943 76 60 39
BERGARA ☎ 943 76 19 98

**GOROSTi Taberna**
☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

**LEKU-BERRi MERENDEROA**
Janariak eta edariak
Tf. 943 76 60 94

**zabalo**
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak
Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89

**LARREA TABERNA**
Kalebarren 17
ANTZUOLA

# Langabezia behera

## Bergaran 425 langabetu zenbatu ditu INEMek urtarrilean



**Deba Garaia Euskal Autonomi Erkidegoan langabezia tasa baxuenetakoa duen bailara dugu gaur egun. INEMeko probintzia zuzendaritzak emandako datuen arabera, Deba Garaiko langabazia tasa %5,25ekoa da. Bergaran ere langabeziak behera egin du nabarmen azken urteotan.**

Lan okupazioari begiratzen badiogu, Deba Garaiko egoera EAEko onenetakoa da. Aipatutako datuetan jasotzen denez, Bizkaiko Lea-Artibai eskualdeak (%4,5) eta Arabako Mendialdeak (%3,41) bakarrik daukate Deba Garaiak baino langabezia tasa baxuagoa. Adituen arabera, industria jarduerak eta zerbitzuen sektoreak izandako hazkundeak zerikusi handia izan dute kontratazioen igoeran. 1997ko abenduan 1.765 langabetu zeuden errejistratuta gure bailaran eta joan den abenduan kopuru horrek behera egin zuen. Azken datuetan oinarrituz, langabetuak 1.642 dira gaur egun. Deba Garaia Gipuzkoako langabezia tasarik baxuena duen bailara da, probintziako batez besteko tasa (%9,14) ia 4 puntutan gutxituz. 1994 urtean hasi zen langabezia tasa jaisten bai Gipuzkoan eta bai Deba Garaian. Orduan 42.435 langabetu errejistratu ziren gure probintzian eta orain 21.700 dira errejistratutakoak.

Hala ere, INEMeko iturrien arabera, benetako langabetuen kopurua hori baino handiagoa izan daiteke langabezia neurtzeko erabiltzen den sistema dela eta; “langabezia tasaz ari garenean INEMek egindako erroldaz hitzegiten dugu. Baina, aldi berean, estatistikak ere lantzen dira eta biztanleria aktiboaren artean inkestak egiten dira noizean behin. Hori dela eta, INEMek emandako datuak eta landutako estatistiken artean aldea egoten da. INEMek Gipuzkoan errejistratutako langabezia %9,14koa da; estatistikek %13aren inguruan kokatzen dute langabezia tasa. Dena den, hamarkadako momenturik onenean gaudela esan daiteke”.

Goiko argazkian Arrasateko INEMeko bulegoa. Deba Garaiko langabezia tasa %5,25ekoa da eta Bergaran 425 langabetu zenbatu dira.
ARTXIBOA



## GEHIENAK EMAKUMEAK

Begoña Montoya Arrasateko INEMeko bulegoko arduradunaren arabera, "kontratazio mugagabeen kopuruak oso baxua izaten jarraitzen du, baina lehen baino gehiago egiten da, batez ere kooperatibetako bazkideen kasuan. Gure artean, Deba Garaian, langabeziak oso aldakorra izaten jarraitzen du. Enpresa handiak daudenez, langabezia tasa enpresa hauen produkzio beharren menpe egoten da. Langabeziak uda aldean normalean gora egiten du. Fagorrek edo beste enpresa handiek oporrak hartzen dituztenean, langabetuen erroldak gora egiten du nabarmen gure bulegoan, langabezia txandakakoa da. Dena den, Deba Garaiko enpresen eskakizunek gora egin zuten iaz eta kontratu luzeagoak egin ziren. Orain, urtarrilean, langabetuen igoera nabaritu dugu. Dena den, betidanik, gure eskualdeko langabezia tasa Gipuzkoako baxuena izan da. Errenderia aldean, berriz, langabezia altuagoa izaten da".

Langabeziak emakumeei eragiten die bereziki; "langabetuen %63 emakumeak dira. Hori horrela izan da beti eta azterketa soziolojiko bat beharrezkoa litzateke. Langabetuen erretratu robotari dagokionez, normalean kualifikatu gabeak, helduak eta emakumeak izaten dira gehienak.

## 425 LANGABETU BERGARAN

Bergaran ere langabetu-kopuruak behera egin du azken urteotan. 1991n 727 langabetu zenbatu ziren herrian eta 1994tik hona kopurua jaitsiz joan da. Udaletik emandako datuetan oinarrituz, iaz 431 langabetu ziren Bergaran, biztanleria aktiboaren %6,41. Mariaje Unamuno udal enplegu teknikariaren arabera, "egoera soziala aldatu egin da eta lana sortu da azken urteotan Bergaran eta inguruan. Lan baldintzak eskasak izaten dira askotan baina langabeziak behera egin du, lan kontratu motzak ugaritu egin direlako". Gure eskualdeak momentu ona bizi duela dirudi; "azken batean industriak pisu handia dauka Deba bailaran eta kooperatibek ere izugarrizko garrantzia izan dute lana sortzeko orduan, batez ere MCC sortu zenetik". Bergaran diren langabetuei buruz, zera diosku Mariajek; "gehienak emakumeak izaten dira, prestakuntza gabekoak, nahiz eta gizonak ere egon tartean. Langabeziak 24-34 urte bitartekoei eragiten die batez ere. Lizentziaturak dituztenak ere badira, batez ere ikasketak orain amaitu eta oraindik sekula lan egin ez dutenak. Enpresaritza edo ekonomi lizentziatuak eta letretako ikasketak egin dituzten ikasleen kasuak izaten dira. Langai zerbitzua eskaintzen dugunetik asko dira guregana hurbiltzen direnak".

Gaur egun, INEMeko datuen arabera, 425 langabetu daude Bergaran, 140 gizonezkoak eta 285 emakumezkoak. Ikasketa mailari begiratuta, OHOrarteko ikasketak dituztenak 129 dira, beste 113k eskola agiria daukate, BBB ikas-

### Azken urteotako datuak Bergaran

*Iturria: Udala*

| | langabetuak | % |
|---|---|---|
| **1991** | 727 | 10,81 |
| **1992** | 623 | 9,26 |
| **1993** | 671 | 9,98 |
| **1994** | 691 | 10,27 |
| **1995** | 569 | 8,46 |
| **1996** | 512 | 7,61 |
| **1997** | 475 | 7,06 |
| **1998** | 431 | 6,41 |

### Biztanleria landuna

*Iturria: Eustat*

| | Guztira | Nekazaritza | Industria | Eraikuntza | Zerbitzuak |
|---|---|---|---|---|---|
| **EAE** | 689.100 | 17.040 | 219.405 | 48.178 | 404.477 |
| **Gipuzkoa** | 233.028 | 5.956 | 79.603 | 16.371 | 131.098 |
| **Deba Garaia** | 24.155 | 282 | 12.957 | 1.186 | 9.730 |
| **Arrasate** | 9.165 | 50 | 4.917 | 410 | 3.788 |
| **Oñati** | 4.049 | 47 | 1.985 | 269 | 1.748 |
| **Eskoriatza** | 1.568 | 17 | 940 | 90 | 521 |
| **Aretxabaleta** | 2.467 | 27 | 1.446 | 104 | 890 |
| **Antzuola** | 749 | 20 | 441 | 57 | 231 |
| **Elgeta** | 377 | 16 | 183 | 17 | 161 |
| **Leintz-Gatzaga** | 116 | 5 | 49 | 9 | 53 |
| **Bergara** | 5.664 | 100 | 2.996 | 230 | 2.338 |

ketak dituztenak 51 lagun dira, Lanbide Heziketa 62 eta goi mailako titulazioa 39 lagunek daukate.

Goian aipatutako eskualdeko langabezia datuek zerikusi zuzena daukate Gipuzkoako Foru Ogasunak egin berri duen ikerketarekin. Javier Moreno Politika Fiskal eta Finantzieroaren zuzendari orokorrak zuzenduta, Iñaki Ansoategik eta Maria Angeles Gilek 1997an Gipuzkoan egin ziren 295.543 errenta aitorpenak aztertu dituzte eta ondorioetako bat zera da: Deba Garaia dela Gipuzkoan hazkunde ekonomikorik handiena eta orekatuena izan duen bailara. Bergarako kasuan, gure herria Gipuzkoako laugarrena da herritarren batez besteko diru sarrerei begiratuz (1.186.967 pezeta), Donostia (1.299.475 pezeta), Aretxabaleta (1.253.219 pezeta) eta Oñatiren atzetik (1.209.848 pezeta). Eskoriatza (1.142.229 pezeta) eta Arrasate (1.110.275 pezeta) zerrendako seigarren eta zazpigarren tokian agertzen dira. Bestalde, errenta bakoitzeko sarrerei dagokienez, Bergara bosgarrena da, batez besteko 2.543.477 pezetako kopuruarekin. Bergararen aurretik, Olaberria (2.867.223 pezeta), Donostia (2.830.569), Hondarribia (2.619.472) eta Aretxabaleta (2.589.666) daude. Zerrendan agertzen diren Deba bailarako beste herrien kasuan, Arrasate zazpigarrena da (2.517.121), Oñati bederatzigarrena (2.494.309) eta Eskoriatza hamahirugarrena (2.445.274 pezeta).

**ESKUALDE OREKATUA**

Foru Ogasunaren txostenak, garapen ekonomikoari begiratuta, hiru modelo bereizten ditu Gipuzkoan: lehenengoa Donostiak, Hondarribiak eta Zarautzek osatzen dutena, hiri erresidentzialak turismoari etekin handiena ateratzen diotenak eta errenta handiagoa dutenak, nahiz eta errenten artean alde handia egon. Bigarren modelo bat eskualdeko buru diren eta eskualdeari zerbitzuak ematen dizkioten herriek osatuko lukete. Multzo honetan Tolosa, Ordizia-Beasain, Azpeitia edo Eibar daude. Azkenik, Deba Garaiko eskualdearen modeloa aipatzen da. Foru Ogasunaren txostenak dioenez, Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza, Oñati eta Bergara modelo horietatik kanpo daude herri barruko zein herriarteko berdintasunagatik. Deba Garaikoa hazkunde ekonomiko orekatuena dakarren modelo berezia dela diote Ansoategik eta Gilek euren azterketan. Diru gehien eta gutxien dutenen arteko aldea txikiagoa da gure artean Gipuzkoako beste eskualdeetan baino. Enpresa txiki zein ertainek gure eskualdean duten garrantzia da berdintasun ekonomiko horren arrazoi nagusienetakoa.

Gipuzkoako errentaren jatorri nagusia lana da (%81,9), jarduera profesional eta enpresarialetatik %10,2 lortzen da eta kapital errentatik, berriz, %6,2. Aitortutako bestelako sarrerek %1,7 besterik ez dute suposatzen. Deba Garaiaren kasuan lan errenta %86,8koa da (lan jardueretatik ateratako errenta handiena Gipuzkoan Deba Garaikoa da), jarduera profesional eta enpresarialetatik %6,7 lortzen da, kapital errentatik %5,6 eta gainerako %0,9 bestelako sarreretatik. B

Deba Garaiko langabetuetatik %63 emakumeak dira. Langabetu gehienak, kualifikatu gabeak, helduak eta emakumeak dira

Industria jarduerak eta zerbitzuen sektoreak 1994tik hona izandako hazkundeak zerikusia izan du kontratazioen igoeran



1997an Gipuzkoan egin ziren errenta aitorpenak aztertu ondoren, gure probintzian hazkunde ekonomikorik handiena eta orekatuena izan duen bailara Deba Garaia dela ikusi da. ARTXIBOA

# Labegaraietako futbito txapelketa

## partiduak

**ZAPATUAN BARRUAN**

| | |
|---|---|
| **11:30:** Xurrupak-Bayer | **Agirrebeña** |
| **12:30:** Agirrebeña-K. Piperrak | **Bayer** |
| **16:00:** Pagomendi-Jauja OH Zerezos | **Fac** |

**ZAPATUAN KANPOAN**

| | |
|---|---|
| **17:00:** Tom Cat Argandolas-Fac | **Sirimiri Eri** |
| **18:00:** Sirimiri Eri-Arbe Kirolak | **Tom Cat** |

**DOMEKAN BARRUAN**

| | |
|---|---|
| **09:00:** La Juve-Agiñaspi | **Etengabe** |
| **10:00:** Irubide Jatetxea-Etengabe | **P. Bergara** |
| **11:00:** Amilotx-Pinturas Bergara | **Irubide** |
| **16:00:** Errotagain-Azpeitxi Jatetxea | **Canalejas** |
| **17:00:** Bar Canalejas-A Ze Flaxa Etxagi | **Bildurbarek** |
| **18:00:** Shaktale-Bildurbarek Opel/Lam | **A Ze Flaxa** |
| **19:00:** Artusamak-Guadalest | **Urrutxurtu** |
| **20:00:** Urrutxurtu-Patxaran Team | **Artusamak** |

**DOMEKAN KANPOAN**

| | |
|---|---|
| **10:00:** Usoa-Txipiron | **Amilotx** |

## argi!

### Igandekoak hurrengoan kalera

Igandekoak taldeak bost puntu gutxiago izango ditu. Arbitratzera ez agertzeagatik bi puntu kendu dio Antolaketa Batzordeak eta beste hiru puntu jokatzera ez aurkezteagatik. Antolatzaileek Igandekoak taldeari hurrengo batean jarrera bera azalduz gero, txapelketatik kanpo izango direla ohartarazi nahi dio.

## jokoz kanpo



**IBAN LAZKANO**
**Xurrupak**

**G.** Zer moduz 2. itzuliko partiduak?
**E.** Erdialdetik behera egongo ginela uste genuen, baina nahiko ondo gabiltza. Partidu bakarra galdu dugu.
**G.** Zein izan da orain arteko talde gogorrena?
**E.** FAC.
**G.** Zein postutan jokatzen duzu?
**E.** Atzean.
**G.** Zenbat jokalari zaudete taldean?
**E.** 10 inguru baina betikoak joaten gara jokatzera.
**G.** Noiztik txapelketan?
**E.** Duela lau urte hasi ginen. Dena dela, joan zen denboraldian ez genuen jokatu.
**G.** Batzordeak ipinitako arauei buruz zer uste duzu?
**E.** Arau eta aldaketa gehiegi daude. Bat aipatzearren, bandatik egiten den sakean hankak mugitzea onartuta egon beharko litzateke.
**G.** Zer taldetako kamiseta oparituko zenuke?
**E.** Dudarik gabe, Realarena, atzean, Gomezen izena daukana.
**G.** Partidu bat jokatzean zerk jartzen zaitu sutan?
**E.** Baloirik ez daukazula, ostikoak ematen dituztenek.

## gora eta behera

### Jakina Patxaran Team

Hirugarren mailan Moskis izan da azken jardunaldietan lehen postuan ikusi duguna. Jakina Patxaran Team-ek Moskis taldeari irabazi egin zion azken jardunaldian. Ondorioz, eta Ufala taldeak lortutako garaipenari esker, honek bat egingo du puntutan Moskisekin.

### Mo(ko)lotov bigarren

Mo(ko)lotovek ez zuen Amozkibarren kontrako derbian gol bakarra ere lortzerik izan. Mo(ko)lotov lehendabiziko postuan izan da orain arte eta Moskis berriz bigarren. 3-0 emaitzaren ondorioz sailkapeneko postuak aldatu egin dira. Une honetan, Amozkibar dugu lehen postuan eta Mo(ko)lotov bigarrenean.

## emaitzak

| | |
|---|---|
| HHH-Agirrebeña Jatetxea | 3-4 |
| Buya-Igandekoak | 3-0 |
| Txipiron-Xurrupak | 2-5 |
| Agiñaspi-Amilotx | 9-1 |
| Ufala-Ari Ari | 3-2 |
| Amozkibar-Mo(ko)lotov | 3-0 |
| SLP-Ion Autoak | 3-2 |
| Guadalest-Sirimiri Eri | 3-4 |
| Moskis-Jakina Patxaran Team | 3-5 |

## sailkapenak

### Lehen maila

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Azpeitxi Jatetxea | **34** | 15 |
| **2.** | Errotagain | **26** | 14 |
| **3.** | A Ze Flaxa Etxagi | **23** | 13 |
| **4.** | Pagomendi | **23** | 15 |
| **5.** | Ortzi | **23** | 15 |
| **6.** | Bar Canalejas | **20** | 15 |
| **7.** | Mongatxurrak | **17** | 15 |
| **8.** | Bildurbarek Opel/Lam | **15** | 14 |
| **9.** | Jauja OH Zerezos | **12** | 15 |
| **10.** | Shaktale | **10** | 15 |

### 2. maila

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Bayer | **16** | 6 |
| **2.** | FAC | **15** | 7 |
| **3.** | Artusamak | **14** | 6 |
| **4.** | Xurrupak | **14** | 7 |
| **5.** | Sirimiri Eri | **11** | 6 |
| **6.** | Arbe Kirolak | **11** | 7 |
| **7.** | Ezinleike | **9** | 8 |
| **8.** | Tom Cat Argandolas | **8** | 7 |
| **9.** | Uve Bikoitza | **4** | 6 |
| **10.** | Guadalest | **3** | 7 |
| **11.** | Txipiron | **2** | 6 |
| **12.** | Usoa | **0** | 7 |

### 3. maila

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Moskis | **16** | 7 |
| **2.** | Urrutxurtu | **16** | 6 |
| **3.** | Ufala | **16** | 7 |
| **4.** | Ari Ari | **13** | 7 |
| **5.** | Jakina Patxaran Team | **12** | 6 |
| **6.** | Irubide Jatetxea | **10** | 6 |
| **7.** | Agirrebeña Jatetxea | **10** | 6 |
| **8.** | Matxakategi | **4** | 7 |
| **9.** | Komando Piperrak | **4** | 7 |
| **10.** | Etengabe | **3** | 6 |
| **11.** | HHH | **3** | 8 |

### 4. maila

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Amozkibar | **16** | 7 |
| **2.** | Mo(ko)lotov | **15** | 8 |
| **3.** | Agiñaspi | **10** | 5 |
| **4.** | Patatus | **9** | 7 |
| **5.** | Buya | **9** | 6 |
| **6.** | SLP | **9** | 7 |
| **7.** | Ion Autoak | **8** | 7 |
| **8.** | Amilotx | **6** | 6 |
| **9.** | Igandekoak | **6** | 8 |
| **10.** | La Juve | **5** | 7 |
| **11.** | Pinturas Bergara | **5** | 6 |

kronikak

### Futbola
## Infantilak poliki-poliki gora

Joan zen asteburuan, BKEko ohorezko infantil mailakoek 3-0 irabazi zioten Aretxabaletako taldeari. Domekako partiduan, gaztetxoak fin ibili ziren Ipintzako zelaian. Lehendabiziko zatian, gol bakarra egin arren, bigarrenean bi egitea lortu zuten. Golegileak, Rollan, Marauri eta Jose Jabier izan ziren.

Taldea Arbulu, Uribesalgo eta Albisuak zuzentzen dute. Azken jardunaldi honetan, taldeko jokalariak aukeratzeko beharrezko denbora izan ez bazuten ere, hirukotearen jokalariek ondo erantzun zuten. Taldea, poliki-poliki, sendotasuna lortzen ari da. Horren adibide, azken aldian ikusi ditugun partiduak.

### Eskubaloia
## Bergararrak legazpiarren gainetik

Josetxo Muniategiren taldeak Legazpiren kontrako partidua izan zuen joan zen asteburuan. Bergararrek ez zuten inongo arazorik izan partidua irabazteko. 15-30eko emaitzarekin irabazi zuten. Partidu erreza izan zen eta hori aprobetxatuz, joko berria eta gauza berriak probatzeko aukera ere izan zuten.

Lehen zatian 14-8ko abantaila lortu eta partidu osoan zehar, azken minutuetaraino gol ugari jaso zuten legazpiarrek. Asteburuan, jubenilek atsedenaldia izango dute, baina bi aste barru eta lau jardunaldiren faltan, lehen postuan dagoen Arrasateren kontra neurtuko dira. Bergararrak bigarren daude sailkapenean.

### Saskibaloia
## Seniorrek zorterik ez derbian

Bolsos Bergarako saskibaloi taldeak ez zuen Arrasateren kontrako derbia irabazterik izan. Partidu osoan zehar markagailua nahiko berdinduta egon zen. Bergararrek aurkariei pertsonal ugari eragin arren, Alex Familiarren multilek ez zuten arrasatearren jokoaren azkartasunari erantzun ona ematen jakin azken minutuetan. Azkenean, 86-78 emaitzarekin itzuli ziren etxera.

Asteburu honetan Ursulinas taldearen kontra neurtuko dira. Bergararrak partidua irabazi beharrean daude. Liga amaitzeko 9 jardunaldi gelditzen dira eta partidua galduz gero, beste taldeek abantaila handia hartuko liekete bergararrei.

### *AITOR DELARRIBERETE/ Snowboardzalea*
## *"Snow egin arren eskia ere gustoko dut"*

**Zortzi urte daramatza gero eta ezagunagoa den snowboard kirolean. Joan zen denboraldi hasieran ez zuen zorte handirik izan lesioak jota egon zen eta. Kataluniako unibertsitateen arteko txapelketa irabazi eta dagoeneko Italian dago, junior mailako Munduko Txapelketa jokatzen. Neguko denboraldia amaitutakoan, batez ere, karatea egiten du.**

**G.** Lesio larria izan zenuen?
**E.** Duela urtebete, karnabal sasoian korritu nuen lasterketa batean, pinu baten kontra jo eta belauna zazpi toki ezberdinetatik apurtu nuen. Irailerarte ezer egin ezinik egon nintzen.

**G.** Astuneko freestyle txapelketan izan zara.
**E.** Inoiz ez nuen freestyle modalitatea probatu, baina txapelketa asko suspenditu ziren eta Astunekoan parte hartzea erabaki nuen. Freestyle-an saltoak egiten dira eta nik slalom eta giganteetan aritzea dut atsegin, hori dela eta, ez nuen sailkapen ona egiterik izan.

**G.** Zenbat egun egingo dituzu Italian?
**E.** Astebete.

**G.** Tabla biguna ala gogorra?
**E.** Biguna modan dago Ameriketatik datorren tendentzia dela eta, baina abiadura handia nahi izanez gero eta pistan ibiltzea gustatzen bazaizu, gogorra erabili behar da. Biguna saltoak egiteko erabiltzen da.

**G.** Zer du snowboardak eskiak ez duena?
**E.** Biak atsegin ditut. Snowboard egiteak ez du esan nahi eskia gustoko ez duzunik, batzuek hori dioten arren.




# KARTELDEGIA

### FUTBOLA

**Bergara-Munibe**
Lehen mailako jubenila
Zapatua. 16:30. Ipintza

**Bergara-Almen**
Lehen mailako kadetea
Domeka. 10:00. Ipintza

**Bergara-Gazteak**
Bigarren mailako jubenila
Domeka. 11:30. Ipintza

### ESKUBALOIA

**Bergara-Hondarribia**
Kadete mailako mutilak
Zapatua. 17:15. Kiroldegia

### SASKIBALOIA

**Bergara-Ursulinas** (Iruñea)
Senior maila
Zapatuan. 19:00. Kiroldegia

### PILOTA

FEDERAZIO TXAPELKETA
*Eguakitza. 19:30. Pilotalekua*
Bigarren mailako kadeteak:
**Bergara-Beloki** (Zumarraga)
Lehen mailako kadeteak:
**Bergara-Eskoriartza**
Senior maila:
**Bergara II-San Esteban**

### ARETO FUTBOLA

**BergarakoLagunak-**
**La Salle Azitain**
Mutilak
Domeka. 12:00. Kiroldegia

# Haurren banakako txapelketako finalerdiak domekan frontoian

## Datorren eguenean finala jokatuko da hainbat mailatan

**BKEko pilotari gaztetxoenak pilota txapelketan murgilduta ibili dira egunotan eta dagoeneko finalerdietan daude. Domekan, finalerdiak jokatuko dituzte eta bertako garaileak eguenean elkartuko dira txapelduna nor izango den erabakitzeko. Guzti hau antolatzen ibili direnak, BKEko Iker Zabaleta, Iñigo Zabaleta eta Abraham Osa pilotariak izan dira.**



Iker Zabaleta eta Iñigo Zabaleta BKEko pilotarien entrenatzaileak.

Futbolaz gain, badira beste kirol batzuk ere Bergarako gaztetxoen artean interesa piztu dutenak. Esate baterako, asko dira pilota aukeratu eta astero Udal Pilotalekuan partiduak jokatzen dituztenak. Une honetan 40 gazte inguru dira Iker, Iñigo eta Abrahamen aginduetara pilotan ari direnak. Iñigok, zortzi eta bederatzi urteko 20 haur inguru entrenatzen ditu; Iker eta Abraham-ek, berriz, hamabi urteko beste 20 gazte. Alde batetik Eskola Kirolean pilota aukeratu dutenak eta, bestalde, urtean zehar BKEn edo pilota eskolan ari direnak. "Guztiek izugarrizko gogoa erakusten dute jokatzerako garaian. Guk entrenamenduetan partiduak antolatzen ditugu. Besterik ez dute nahi, partiduak jokatu eta jakina, irabazi. Zuriz janztea izugarri gustatzen zaie. Benetan pilotari onak izateko aukera handia duten gazteak daude. Normala den bezala, ezin daiteke profesionaletara inor iritsiko denik ziurtatu baina erraztasun handia dutenak daude eta hau sustatu beharra dago". Hirukote honek duela bi urte hartu zuen gaztetxoen ardura. "Reyes laguntza beharrean zegoen eta eskaintza luzatu ziguneanbaiezkoa eman genion. Gero eta haur gehiago daude eta jendea behar da hau guztia bultzatzeko. Hasiera batean Reyesek maila guztiak entrenatzen zituen, gurea eta txikiena ere bai. Lana gustora egiten dugu eta eskerrak ere jasotzen ditugunez...".

> **"Gazteek besterik ez dute nahi, partiduak jokatu eta nola ez, irabazi. Benetan gogo handiz jokatzen dute pilotan"**

Domekako finalak amaiera emango dio txapelketari baina beste bat antolatzeko asmoa dute. "Oraindik eguna zehaztu gabe dago baina binakako txapelketa martxan jartzeko asmoa daukagu".

### JOKATZEKO GARAIAN

Gaztetxoak entrenatzeaz gain, Iker, Iñigo eta Abraham Reyes Azkoitiaren agindupean entrenatzen dira eguaztenetan, asteburuetako partiduei aurre egiteko. Une honetan Federazio txapelketa jokatzen ari dira. "Gipuzkoako txapelketak ematen dio hasiera denboraldiari. Aurten ez dugu zorte handirik izan. Gure mailan Muru bezalako pilotariak daude, benetan maila ona dutenak eta, ondorioz, ez dugu gauza handirik egiteko aukerarik. Dena dela, gustora gabiltza eta gogoa dagoen bitartean bertan jarraituko dugu". Pilotariak diren aldetik, Aspeko txapelketaren inguruko iritzia eskatu diegu: "Goñi eta Zezeaga oso ondo dabiltza. Txapeldunak izateko aukera handiak dituzte". ■



Aste Santuko irteerak zortzi egun iraungo du. ARTXIBOA

## Pol-Polek antolatutako Aste Santurako eski irteera jendez gainezka

**Pol-Pol Mendizale Elkarteak**, Aste Santuan Suitzako Alpeetako Crasmontana eski estaziora irteera antolatu du. Dagoeneko 50 pertsonak eman dute izena eta Pol-Polekoek adierazi digutenez, ez dago lekurik. Eskiatzaileak apirilaren 2an abiatuko dira Suitzarantz eta 10ean egingo dute buelta. Bestalde, datorren asteburuan, Formigalera asteburuko irteera antolatu dute. Informazio gehiago, Pol-Polen, 943 76 48 51 telefonoan.

## Elorregiko pilotalekua berrizteko margotze lanetan

**Elorregiko** pilotalekuaren egoera ikusita, Udalak berritze lanak martxan ipintzea erabaki du. Pilotalekuan frontiseko pintura altxatuta dago, ezkerreko hormakoa egoera txarrean eta harmarria, berriz, apenas ikus daitekeen. Hori dela eta, Udaleko Hirigintza, Obra eta Ingurugiro eta Hazienda batzordeek, bertan lijatze, masila emate eta margotze lanak egitea erabaki dute. Konponketa lanek astebete inguru iraungo dute eta aurrekontua 772.560 pezetatakoa da. Martxoaren hasieran helduko diete lanoi.

## Bergararrak Ertamerikaren aldeko aerobitonean

**Domekan**, Anoetako Gaska polikiroldegian, Ertamerikaren aldeko aerobitona jokatuko da. Antolatzaileek, 600-800 pertsona biltzea espero dute. Saioa zuzenduko dutenen artean, Gema eta Marisabel Otaño daude. Donostian ez ezik, estatuko hainbat hiriburutan (Frantzian eta Portugalen) ere, egun eta ordu berean, hasiko da aerobitona, arratsaldeko 17:00etan alegia. Izen ematea 1.000 pezetakoa da. Bertan jasoko den dirua, UNICEF erakundeari zuzenduko zaio.

## ESKOLA KIROLA
### Karteldegia

**DEBA BAILARAKO PILOTA TXAPELKETA**
ALEBIN MAILA
Aranzadi B-Mendaro A
Mendaro B-M. Lagundia A
*Guztiak 15:30etan Elgoibarko pilotalekuan. Irteera, Bergarako Udal Pilotalekutik 15:00etan*

**FUTBOLA**
INFANTIL MAILAKO MUTILAK
**09:30:** M. Lagundia-Antzuola
**11:00:** Aranzadi-Almen
*Zapatuan, Ipintzan*
INFANTIL MAILAKO NESKAK
**10:15:** San Biator-Aranzadi
*Zapatuan, Atxabalpen. Irteera 09.45etan Pesan*

**ARETO FUTBOLA**
KADETE MAILAKO MUTILAK
**11:00:** La Salle E-M. Lagundia
*Zapatuan, La Sallen (Eibar)*

**ATLETISMOA**
BENJAMIN MAILA
**09:30:** M. Lagundia A, Aranzadi 1, Aranzadi 2
**10:30:** Aranzadi 3, Aranzadi 4, M. Lagundia B
**11:30:** Aranzadi 5, Antzuola A, San Martin A, M. Lagundia D
**12:30:** M. Lagundia E, Aranzadi 6, Antzuola B, San Martin B
*Zapatuan, Agorrosinen*

**ESKUBALOIA**
ALEBIN MAILAKO MUTILAK
**10:15:** Aranzadi 12-Antzuola
**10:15:** Aranzadi 11-M. Lagundia B
**11:15:** San Martin-Aranzadi 10
**11:15:** Aranzadi 8-M. Lagundia A
**11:15:** Aranzadi 9-Aranzadi 13 (Atsedena, Elgeta)
ALEBIN MAILAKO NESKAK
**12:15:** Antzuola-Aranzadi 15
**12:15:** M. Lagundia-Elgeta (Atsedena Aranzadi 14)
*Guztiak zapatuan Aranzadi Ikastolan*
INFANTIL MAILAKO MUTILAK
**11:30:** Zuazo 1-Aranzadi
*Zapatuan, Olaiturrin (Oñati)*

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
☎ 943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

BOLU GIMNASIOA
Martxoaren 8rako zabalik!
DATORREN ASTEKO BERRIGARAN INFORMAZIO GEHIAGO

SANTOS
IRRATI-TB
TELEFONO MUGIKORRAK AIRTEL 9.990 PEZETATIK AURRERA!
Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!**

**1. ETXEBIZITZAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

**3. LOKALAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

**4. LANA**
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**6. IBILGAILUAK**
Saldu
Erosi
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
Saldu
Erosi
Bestelakoak

**8. DENETARIK**
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZAK

### SALDU

San Lorentzon pisua salgai. 943 76 21 63.

Osintxu. 939 93 68 41.

Pisu amueblatua Zubiaurren. 943 76 48 05.

Aranerreka. 943 76 06 52.

Aranerreka. 943 76 20 52.

Bolu. 943 76 01 80.

Martoko. 943 76 55 86.

Fraiskozuri. 943 76 15 40.

S. Lorentzo. 943 76 48 39.

Masterreka. 943 76 17 49.

### ERRENTAN EMATEKO

Apartamendua Zarautzen (abuztuan izan ezik). 943 76 42 05

### ERRENTAN HARTZEKO

Pisua hartuko nuke alokairuan. 943 85 36 99.

### ETXE KONPARTITUAK

Jendea behar da pisua konpartitzeko Bergaran. 943 76 71 93.

Etxe konpartituan gela bat hartuko nuke. 943 76 21 48.

Gela nahi nuke pisu konpartituan. 943 27 77 80.

## 2. GARAJEAK

### SALDU

Garajea salgai Artzamendin. 943 76 06 25.

Garajea salgai Ibargarain. 943 15 15 81.

Garajea salgai Aranerrekan. 943 76 20 52.

Matzerreka. 945 23 48 07.

Aranerreka. 943 76 28 07.

K.Gallastegi. 943 76 27 61.

B. Laskurain. 943 76 47 86.

B. Laskurain. 943 76 18 85.

B. Laskurain. 943 76 17 84.

Zubiaurren. Pisu bikoitza. Deitu 943 76 08 89 telefonora.

Ibargarai. 943 76 72 17.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

### ERRENTAN EMATEKO

Garajea alokairuan Poligonoan. 943 76 32 58.

Garajea alokairuan Ibargarain. 943 76 23 53.

Garajea alokairuan Zubiaurren. 943 76 23 53.

### ERRENTAN HARTZEKO

Garajea alokairuan hartuko nuke Zubietan. 943 76 47 50 (Jabi).

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

## 3. LOKALAK

### ERRENTAN EMATEKO

Lokala S. Pedro kalean. 943 76 10 39.

Arte lanak egiteko lokal aproposa konpartituko nuke Arrasatetik gertu. 943 71 42 86.

Lau gelako lokala Koldo Eleizalden, edozein bulegotarako egokia eta prestatua. 943 76 58 91.

Taberna-jatetxea alokairuan. 943 76 41 71/ 76 37 80 (gauez).

## 4. LANA

### ESKAINTZAK

Neskak haurrak zaindu edo denda/bulegoan lan egingo luke. 943 76 26 82/76 57 34.

Etxeko lanak edo haurrak zaindu. Esperientzia. 943 76 72 32 (Ana).

Neskak, goizez, haurrak zaindu edo etxeko lanak. 943 76 46 07.

Esperientziadun neskak edadetuak zainduko lituzke. 943 76 32 16.

Neska edozein lanetarako prest. 943 76 35 38.

Arratsaldez lan egingo nuke. 943 76 52 39 (Karmele).

Erizain titulatuak gaixoak, edadetuak edo haurrak zainduko lituzke. Deitu 943 76 37 99 telefonora.

Jaiegunetan eta astebukaeretan tabernari lanak egingo nituzke. 943 76 36 14 (Igor).

Neskak etxeko edo sukaldari lanak egingo lituzke. 943 76 70 15.

Esperientziadun neskak, goizez, haurrak zaindu

IBARGUREN PENTSUAK
BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak
San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79
PENTSUAK Biona BANATZAILEA

Matxiategi Elektragintza C.B.
ELEKTRIZITATE MATERIALEN SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA
Fleming 5 ☎ 943 76 19 94

LONBIDE
OINETAKOAK
Bidekurutzeta 5
BERGARA
☎ 943 76 10 57

AZPEITXI
Jatetxea
Aranerreka 13 behea ☎ 943 76 55 00

edo etxeko lanak egingo lituzke. 943 76 72 31.

**ESKAERAK**

Gauez, gizon bat zaintzeko pertsona behar da. 943 76 13 23/76 57 69.

Pertsona edadetu bat zaindu eta etxeko lanetarako emakumea behar da. 943 76 39 61.

Neska behar da etxeko lanetarako, eguerdiz eta arratsaldez. 943 76 07 98.

## 5. IRAKASKUNTZA

**ESKAINTZAK**

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

Lizentziatuak enpresaritza lehen mailako matematika klaseak ematen ditu. 943 76 32 31.

Majisteritzan diplomatuak klaseak ematen ditu. Deitu 943 76 10 17 telefonora (Rosa).

Ingenieritzan diplomatuak OHO eta BBBko klaseak ematen ditu. 943 76 70 44.

Majisteritzako ikasleak OHOko klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

## 6. IBILGAILUAK

**SALDU**

Ford Scort 1100. SS-U. Bolante deportiboa opari. 125.000 pezeta. 943 76 39 57 (Julian).

Peugeot 306 (SS-AV) salgai. 943 79 78 32.

Yamaha 250 cc. motorra, beltza eta kromatua. 943 76 28 92.

Citroen BX egoera onean. 943 76 29 79 (Ion).

Golf GTI kotxea salgai. 6 urte, egoera onean. 608 77 17 32.

Ford Orion 1.6 Ghia. Aire egokitua. Kilometro gutxirekin. 943 76 23 12.

Renault 5 Turbo kotxea salgai. 943 76 38 84.

Honda CR motorra salgai. 250 cc. 9 urte. 943 76 15 34 (Asier).

Ford Fiesta 1300 kotxea (SS-W) prezio onean salgai. 943 76 63 29.

Honda NSR 80 motorra salgai. 943 76 31 52.

## 7. ANIMALIAK

**SALDU**

Ardi txakurkumeak (arrak eta emeak). 943 81 56 20.

Boxer txakurkumeak salgai. 943 76 40 73.

Hamsterkumeak salgai. 943 76 43 70.

**BESTELAKOAK**

Bi artzai txakurkume opari. 943 76 35 58.

## 8. DENETARIK

**SALDU**

Opera eta kamara musika CD bildumak salgai. 943 76 58 05 (Juanje).

Sony irratia, Nad anplifikadorea eta Beyma bafleak salgai. 943 88 73 13.

Bi oheko gazte logela. 943 78 25 85.

"Mendiz" bizikleta. Shinmano 600. 943 76 38 79.

Kotxeko bi gurpil berri 155/70 hagunekin eta orekatuak. 6.500 pta. 943 76 32 31 (Iñaki).

150 litroko termo elektrikoa eta bi akumuladore. 943 76 44 96.

Ohe artikulatua. 90 zm.koa. 943 76 20 90.

Errepideko bizikleta (8-12 urtekoentzat). 943 76 72 17.

Teknigrafoa salgai. 943 76 02 12.

Jaunartzeko bi traje (marineroa eta neskatilarena). 943 76 14 70.

Sega Master Sistem 2 kontsola. 943 76 47 82.

Jaunartzeko trajea salgai. 639 93 68 41.

**EROSI**

Faxa erosiko nuke prezio onean. 943 76 08 19.

**EMAN**

Furgonetarako goiko parrila oparitzen dut. 943 76 58 37.

**GALDU**

Bi belarritako desberdin galdu ditut, zilarrezkoak, Toki Eder eta Bolu artean. 943 76 52 39.


**Langai**
Euskal Lan Zerbitzua

| | |
|---|---|
| ***PIOI ESPEZIALISTA***<br>Elorrio. 16528/5 | ***ZAINTZAILEA***<br>Gasteiz. 17113/3 |
| ***KOMERTZIALA***<br>Bilbo. 16583/3 | ***DELINEATZAILE PROIEKTUGILEA***<br>Bilbo. 15870/4 |
| ***KALITATE SAILEKO ARDURADUNA***<br>Arabar lautada. 16888/3 | ***BILTEGIZAINA***<br>Zamudio. 16841/5 |
| | ***MANDRINATZAILEA***<br>Donostia. 16433/6 |
| ***GALDATEGI-LANGILEA***<br>Deba Behea. 16973/3 | ***GALDARAGILEA***<br>Donostia. 16439/5 |
| ***AUTOBUS GIDARIA***<br>Donostia. 16978/2 | ***GARRAIOETAKO KOMERTZIALA***<br>Bidasoa Behea. 16485/2 |
| ***ILEAPAINTZAILEA***<br>Bilbo. 17000/3 | |
| ***ILEAPAINTZAILEA***<br>Bilbo. 17114/1 | ***URBANIZAZIO ZAINTZAILEAK, 7***<br>Kantabria. 16557/1 |
| ***MASKORREKO MOLDEATZAILEA***<br>Valencia. 17052/3 | ***BILTEGIZAINA***<br>Zamudio. 16841/5 |

**Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

**SUKALDERAKO GARBITZAILEA eta SUKALDARIA behar dira**
Tf. 943 76 41 06

**IGELTSERITZA BIAK, S.L. IGELTSERITZA**
A. Fleming 5
BERGARA
Mobilak:
907 44 50 38
907 46 57 38

**Bergarako izozki enpresa batek BANATZAILEA behar du**
Tf. 943 76 13 77

**Motorra daukan mutil gaztea behar da etxez-etxeko banaketarako**
Tf. 943 76 72 00
11:00-15:00

**Aldoka Maldoka**
TABERNA
Kruz Gallastegi BERGARA

**IRURAK PINTURAK O.E.**
ERA GUZTIETAKO LANAK — PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA — HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA — IZTUKU FALTSUA
AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32

# Argazki erotikoak eta Internet bat eginik

## "haize@eroak.coñ": Internetetik hartutako irudi manipulatuak ikusgai

**Gutxitan ikusi daitekeen moduko argazki erakusketa prestatu du Mikel Murgizuk Nahikari tabernan. Interneteko irudi digitalizatuak hartu eta informatika programa batez manipulatutako 12 argazki dira.**



"haize@eroak.coñ" izenburuko argazki erakusketan ikusi daitekeen irudietako bat.

Irudi erotikoak dira, pornografiatik gertu daudenak, baina ez dira oso nabarmenak lehen begiratuan ikusi daitezkeenak. Filtro batzuen bidez tratatuta daude eta irudiak ez dira hain agerian geratzen. "Jendeak erakusketaren originaltasuna azpimarratu du. Helburua betiko topikoetatik aldentzea izan da eta ikusleen erantzunaren arabera lortu dugula uste dut" esan digu Mikel Murgizuk. "haize@eroak.coñ" da erakusketaren izenburua.

Formato txikiko koloretako 12 argazki dira ikusgai daudenak. Irudiak Internetetik eta Manga komikitik hartu ditu egileak eta, ondoren, irudiak manipulatzeko erabiltzen den Photoshop programa informatikoarekin ikutu batzuk egin dizkio, filtro berezi batzuk erabiliz. Ordenadoretik, koloretako ploterrean inprimitu eta gero, kristala eta markoa jarri dizkie argazkiei babesgarri gisa. Bestalde, irudiak paper zehargarrian inprimitu eta koadro guztiei argitxo txiki bat jarri die. "Argazki erotikoak dira eta gau giroa, hau da, diskoteka edo kabaretetako giroa erakutsi nahi izan dugu erakusketan. Hortik bonbilatxoen kontua" diosku Mikelek.

Argazkiak domekara arte daude ikusgai.

## "40 ezetz", Asier Altunaren bigarren laburra ia amaituta eta prest dago

**Asier Altuna** "Kixi" bergararra eta Telmo Esnal zarauztarra buru-belarri ari dira egun hauetan "40 ezetz" filme laburrari azken ikutuak ematen. Oraintsu errodatu dituzten irudien muntaia egina dute dagoeneko eta aste honetan soinua eta azpitituluak sartzen jardun dute Madrilen. "Txotx" arrakastatsuaren hariari helduz, idi demen alde iluna, tongoak e.a. dituzte abiapuntu "40 ezetz" honetan. Oraingoan ere, Euskal Herriko nekazal giroa erakutsi nahi izan dute eta umore beltza eta suspentsea ez dira falta.

Jose Ramon Soroiz eta Pako Sagarzazu dira protagonista nagusiak.

## Maiatzean aurkeztuko da Agirrebeña etxeko zeramikei buruzko liburua

**Agirrebeña** etxeko fatxadan dauden zeramikazko plakei buruzko liburua, Antonio Perla historiagileak egindako lana, gertu dago. Liburua Bergarako Udalak argitaratuko du eta lehen aleak joan zen astean jaso zituen inprentatik Xabier Aranburu udal museologoak. Zuzenketa batzuk egin ostean, plazaratzeko gertu izango da. Liburuaren aurkezpena maiatzean egingo da, egileak ez baitu lehenago Bergarara etortzeko aukerarik. "Historias de una estufa. Las placas cerámicas del XVI en la casa Agirrebeña de Bergara" da liburuaren izenburua. 251 orrialde ditu eta 92 irudi jasoko ditu.

SUBIJAI
Gazteentzako moda
Irizar 1 ☎ 943 76 42 41

OILAGORRA TABERNA
Barrenkalea 21 BERGARA

IGARO
✔ Kosmetika eta oparigaiak
✔ Eder gela
✔ Bio Solariunma
Barrenkala 35 Tf.: 943 76 17 27

GURIDI altzariak
Era guztietako altzariak
Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02




# Eli taldea dugu bigarren faseko liderra 201 puntuarekin; gaur bigarren jardunaldia



Joan zen eguakitzean hasi zen bigarren faserako ondo prestatuak agertu ziren lehiakideak.

**Bigarren faseko lehen jardunaldia jokatu zen joan zen eguakitzean. Eli eta Gotxus taldeak aritu ziren nor baino nor eta azkenean Eli nagusitu zen. Sailkapen nagusian lehen postuan dugu 201 punturekin; Gotxusek, berriz, 166 puntu lortu zituen.**

Errastisklas, Hik Galdeu, Gotxus, Petu Petuan, Jotapurtu eta Eli taldeak sailkatu ziren bigarren faserako, baina lehen fasean lortutako puntuak ez dira zenbatzen eta bigarren fase honetan hutsetik hasi dira seiak. Bigarren faseko lehen jardunaldia jokatu denean, Eli taldea dugu lidergoan. Lehen fasean justu-justu sailkatu bazen ere, oraingo honetan finago hasi dira eta joan zen astean 201 puntu lortu zituen, orain arteko errekorra, nahiz eta puntu gehiago egon jokoan.

Eli taldea galderetan eta kanpoko jokuan nagusitu zen; proba grafikoan, berriz, Gotxus ibili zen hobeto. Galderetan, Elik 176 puntu lortu zituen eta Gotxusek 133. Proba grafikoetan, Elik 5 puntu eta Gotxusek 23 eta kanpoko jokuan, Elik 20 eta Gotxusek 10. Bestalde, ikusleen artean antolatzen den lehiaketan Damian Madinabeitiak eroan zuen kamiseta. Gaurko jardunaldian Mireia Larrañagak egingo ditu aurkezle lanak, Izaro Aperribairen ordez.

## SAILKAPEN NAGUSIA

**1. Eli .................. 201 puntu**
**2. Gotxus ............. 166 puntu**

## 2. FASEKO BIGARREN JARDUNALDIA

**Hik Galdeu** (DBH 4, Aranzadi ikastola)
**Petu Petuan** (DBH 4, Aranzadi ikastola)

## erreseinak



Txiliku
***Hontzaren orduak***
Ipuin-bilduma

Jesus Mari Olaizola "Txiliku" zarauztarrak haur eta gazteendako makina bat lan idatziak ditu. Helduen narratiban, berriz, hauxe da lehen aldia bilduma oso bat kaleratzen duena. "Hontzaren ordua" ipuin-bilduma honetan, euskal literaturan gutxitan agertu den mundu bat dakarkigu autoreak: debekatutako ehiza, armen distira, odolaren lilura... Sentimen primarioz betetako gizarte itxiak eta gizonezkoen unibertso txikiak dira bertan ageri direnak: elkarte gastronomikoak, soldaduen kuartela... Ironia da Txilikuren arma nagusia kostunbrismoa eta tremendismoa gainditzeko.

*- Elkarlanean. 160. orr. 1.600 PTA*



Mikel Urdangarin
***Badira hiru aste***
Folk

Mikel Urdangarin kantari zornotzarraren bigarren diskoa. Oraingo honetan, aurrekoan baino produkzio landuagoarekin, Gaztelupeko Hotsak zigiluaren eskutik. Bere ahotsak lehenagoko kantautoreen antza du eta bibolin-soinuaren eta pianoaren laguntzaz une hunkigarriak eskaintzen dizkigu "Badira hiru aste" honetan, batez ere bizkaieraz abestutako kantuetan. Gehienak abesti lasaiak dira, neguko domeka arratsalde euritsuetan sutondoan entzuteko aproposak.

*- Gaztelupeko Hotsak. 2.100 PTA*

Gallastegi
Jostundegia
Mahoizko lanerako jantziak
San Pedro ☎ 943 76 10 85

PINTURAS BERGARA S.L.
• INDUSTRIARAKO PINTURAK
• APAINKETARAKO PINTURAK
• GARBIKETAK
• ERROTULOAK
Aranerreka 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxa: 943 76 11 40.

## denborapasa / LUMA



### Ezker eskuma

1. Likidoak edateko baliatzen den ontzi-mota. 2. Lurrean egiten den zulo luze meharra. Bromoa. 3. Mozkin. Herri giputza. 4. Ez garaiz. Lehen biak. 5. Bat. Legeak. Iodoa. 6. Daukat. Suari dario. Burdinola. 7. Uranioa. ... egin, begiratu. Sodioa. Ez eme. 8. Iruñeko aireportua. Egun. 9. Nor, pluralean. Ene. Zamorako autoetan. 10. Iparraldean, berritsuak.

### Goitik behera

1. Bi hizkuntza menperatzen dituztenak. 2. Daukate. Betekada. 3. Diruduna. 50. 4. Nafarroako herria. Zango-atala. 5. Ogi-egileak. Neuk. 6. Nik hura eraman nuen, eta hark ni... Jainko egiptoarra. 7. Tantalioa. Arabako alderdi espainiarra. Infin., agertu. 8. Kontsonantea. Bokala. Errepikatuz, fruitu-mota. Bokala. Bat. 9. Igarobidea. Harlauza. 10. Arabiakoa.

### Soluzioa

Ezker eskuma

1. Edalontzia. 2. Lubakia. Br. 3. Elekin. Aia. 4. Berandu. Ab. 5. I. Arauak. I. 6. Dut. Ke. Ola. 7. U. So. Na. Ar. 8. Noain. Gaur. 9. Ak. Nire. Za. 10. Kalakariak.

Goitik behera

1. Elebidunak. 2. Dute. U. Oka. 3. Aberatsa. L. 4. Lakar. Oina. 5. Okinak. Nik. 6. Ninduen. Ra. 7. Ta. UA. Ager. 8. Z. A. Ko. A. I. 9. Ibia. Lauza. 10. Arabiarrak.

# bonofotoa





Miguel Angel Elkoroberezibar

***Bi harmarri hauek dituen jauregia Beltran Lopez de Gallastegik eraiki zuen orain dela 450 urte zubi baten ondoan. Zein da jauregiaren izena?***

# galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. Zer urtetan sortu zen zapatuan Jam-en izango den Reincidentes talde sevillarra?
A- 1986an
B- 1987an
C- 1997an

2. Zein egunkarik bultzatu du euskara irakurtzeko kanpaina?
A- Garak
B- Deiak
C- Egunkariak

3. Zein da Asier Altuna eta Telmo Esnalen bigarren filme laburraren izena?
A- "40 ezetz"
B- "Txotx"
C- "16.ean aidanez"

*Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak* ***Etxagi*** *jatetxean izango dute afaria.*



Aurreko aleko saria, **Juan Perez**entzat izan da: Ixaun jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Juan!
Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
Bonofotoa: **Arruriaga**
Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-A**

**BONOFOTOA** ____________________

**GALDE DEBALDE** *1:* ______ *2:* ______ *3:* ______

Izena-deitura: ______________ Telefonoa: ______________

*Ekarri edo bidali txartela* ***EGUAZTEN EGUERDIRAKO*** *Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!*

ETXAGI
JATETXEA
Masterreka 8
☎ 943 76 53 12

**Etxeko tradiziñuari eutsiaz, Jon Ander Egañak (32 urte) bitxigille eta erlojugille ikasketak egin zittuan. Bederatzi urte daroia Etxeberria erlojutegixan lanian, ezkonduta dago eta Eider izeneko alaba eduki zeben joan zen abuztuan.**

# Jon Ander Egaña

**Zure lanerako beharrezko kualidadia?**
Pazientzia eta eskua.
**Lanik zaillena?**
Obra berrixak egittia, enkarguak.
**Eskuartean izan dozun piezarik baliotsuena?**
20 millioitik gora balio zeban pultsera bat.
**Diamante bat betirako da?**
Bai. Hori esaten dogu publizidadian...
**Rubiak ala zafiroak?**
Zafiroak.
**Urteko zein sasoitan saltzen da bitxi gehixen?**
Gabonetan.
**Gehixen apreziatzen den bitxia?**
Eraztunak eta belarrittakoak.
**Bitxi diseñatzaille bat?**
Cartier.
**Zenbat erloju daukazu?**
Hiru.
**Puntuala zara?**
Bai.
**Afiziño bat, hobby bat?**
Futbola eta motorra.
**Zein motor daukazu?**
Honda VFR 750 bat.
**Motorrian bakarrik ala lagunduta?**
Lagunduta hobe.
**Motorrian egindako bidaiarik luzeena?**
Eskoziara eta Ingalaterrara.
**Pilotorik onena, zein?**
Mick Doohan.
**Internet erabiltzen dozu?**
Ez.
**Telebisiñoko programa bat?**
ETB-2ko martitzeneko pelikulak.
**Eta ikusi ezin dozun beste bat?**
Prentsa larrosekoak.
**Egunkarixan leitzen dozun lehen gauza?**
Atzeko orrialdia eta kirolak.
**Reala UEFAn sartuko da aurten?**
Bai, seguru.
**Zenbat ordu egitten dozu lo?**
Zazpi.
**Etxeko lanetan laguntzen dozu?**
Zeozer.
**Sukaldari ona zara?**
Nahiko mugatua.
**Janari bat, plater bat?**
Mariskua.
**Alabari egindako azken oparixa?**
"Brotxe bebe" bat.
**Zinian ikusittako azken pelikulia?**
"El zorro".
**Loterixan, kinielan jokatzen dozu?**
Kinielan zeozer baina gutxi.
**200 milloi irabazitta, zer?**
Bidaiatu egingo neuke.
**Nora?**
Polinesia edo Pazifikoko irlaren batera. B




Kizkur

Ileapaindegia
Estetika
Solariuma
Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62

Paper pintatuak - Pinturak
A. ZANGITU
ORDUTEGIA:
8.00-13.00 eta 15.00-20.00
☎ 943 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA
Gozogintzan aintzindari.

Irizar 2
☎ 943 76 14 95
JAUJA KIROLAK

ETXAGI
JATETXEA
AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...
Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12



# Ikastolan lagunartean

Argazkian agertzen diren ikasleek 24 urte egingo dituzte aurten. Argazkia 1978an aterata dago, gaur egungo Miguel Altuna institutua dagoen lekuan, Boni Laskurain pasealekuan, Aranzadi Ikastolak zituen gela prefabrikatuetan. Bertan eskolaurreko klaseak ematen ziren. Erretratuan agertzen diren ikasleek 3 urte besterik ez zuten izango garai hartan eta, hasierako zailtasunak gainditu ondoren, ziur gustora arituko zirela lehendabiziko eskola egunetan, lagunartean. Mutilak bata urdinarekin eta neskak, berriz, bata larrosarekin ageri zaizkigu. Klase barruan beste ikasle batzuk somatzen dira. Errekreorik gabe geratu ote ziren egun hartan? Hara hemen zeintzuk diren bertan agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

**Zutik:** Iñigo Ugarte, Asier Lenisoro "Leni", Aritz Intxausti eta Unai Urbina.

**Erdian:** Gorka Mendiaratz, Juan Manuel Bote, Maria Eugenia Iñarra, Arantxa Fernandez de Arroiabe, Naiara Martinez, Ainara Arizabaleta, Maider Unamuno eta Manu Arrillaga.

**Aurrean:** Uxuri Zabaleta, Ione Santos, Amaia Iñarra eta Iñaki Goikoetxea.

*Argazkia: Asier Lenisoro.*

**ADI!**
Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARAra bertara ekar dezakezu.
Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!

ileapaindegia
eder gela
disdira
Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55

JATETXEA
ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!
San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

MEMESA
INDUSTRI HORNIDURAK
Tf. 943 71 24 25

Udaberrirako
berreskuratu zure figura



Gorputz bakoitzari bere
argaltze-bidea

Dei egizu konpromezu barik
eta behar beste informazio
emango dizugu:

943 76 31 71

LILURA
Edertze Institutua

Bidekurutzeta 7. BERGARA





KIÑU



ZURE JAUNARTZE ARGAZKIETARAKO
TXANDA HAR EZAZU.

Kiñu Argazkidenda, Barrenkalea 35. Telefonoa: 943 76 58 05.

# EZ DAGO KONPARAZIORIK




OMU
KERAMIKAK




**Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka 6 • Tf./Faxa: 943 79 14 28 • ARRASATE**
**Erakusketa: Otalora 1, behea • Tf. 943 79 07 20 • ARRASATE**

## ERAIKUNTZARAKO MATERIALAK